

ARRASATE



Maribiki Loradenda

- Erramuak
- Zentruak
- Lora-sortak



LASTER zabalduko dugu

Alfonso X. Jakintsua, 5 (Grupo San Juan) ☎: 79 15 59 ARRASATE

Maritxu bere lekuan

Lehenik eta behin Jose Mari Astigarraga Arrasateko parrokoari eskerrak ematen hasiko naiz. Bai, zuhurtasunez, errealis-moz eta zabaltasunez hartutako erabakian, urriaren 7an Maritxu Kajoi bere "betiko" lekura bueltatu zuelako. Jaia, beti lez, bake, alai eta giro ederrean ospatu zen. Neuk behintzat primeran pasatu nuen. Mozkortuta batzuk, neska edo mutiletan besteak, barriketa bizian hangoak... eta, hori bai, dotore asko gehientsuenak. Baina, modu berean ospatu ahal izango da datorren urtean? Espero. Jaia jaio zen lekuan jaio zen, eta sinbolikoki hori garrantzitsua da -garrantzitsua, ez hil ala bizikoa-. Ahal izanez gero, beraz, irudia betiko lekuan mantendu beharko litzateke.

UBIn (COU) ikasi nuen Histori del Arte, gotikoa eta romanikoa bereizten ditut gutxi gora behera -hara zenbat ikasi nuen, eh?- baina hortik aurrera ezer gutxi. Tira, ez dakidala irudiak bat egingo lukeen parrokiaren berezko estiloarekin. Baina, Mahoma eta mendiaren teoriari jarraituz, parrokia ez bada Maritxuren irudira egokitzen -horrenbeste eskatzera ez naiz ausartzen- zergatik ez egokitu Maritxu parrokia berri-zaharrera?

Irteera bat da. Sinesgaitza egiten zait horrenbeste diru eta horrenbeste denbora kostatuko den bermoldatzeak, Maritxu Kajoiaren moduko irudi txiki batentzat irtenbiderik ez edukitzea. Gauza dexente gaitzagoak egin izan dira, zeresanik ez elizak. Horregatik, ahalmen edo posibilitate kontua baino, borondate kontua delakoan nago.

Sasoi batean jaia desagertarazteko aha- leginak izan ziren. Ez zen posible izan. Ondorioz, "ezabatu ezin bada, atera dezagun, gutxienez, bere lekutik kanpo". Komisiñokuek arrazoia dutelakoan nago, alternatiba ugari -sei edo zazpi uste dut- baina guztiak Maritxu bere egungo lekutik ateratzeko. Azalean zabala, funtsean itxia, oinarrian handik ateratzea besterik ez delako onartzen.

Maritxu Kajoi, adin nagusitasuna lortu berri badu ere, jai zabala da, inor baztertzan ez duena eta dagoeneko Arrasaten eta kanpoan ere erabat sustraitua. Jai herritarra: herritarrengandik sortua eta herritarrek sostengatua. Baina, akaso, horretantxe dago gakoa, zenbaitzuzentzat kontrola ezina bihurtzen dela. "Mozkoren jaia" esango didate batzuk. Ez Santamas, San Juan edo San Fermin baino gehiago. Jai bat da, aldamenekoa izorratzen ez badu, ospa dezala bakoitzak bere modura. Baita elizak ere.

Dakidanez, Komisiñokuek jaia antolatzan dute baina inori ez diote esan nola ospatu behar ez duen. Berriro ere susmotan ari naiz, baina elizak ofizialki babesten dituen jaiak ondo bide daude edo gutxienez ez du haien aurka egiten. Festa asko bereganatu ditu elizak, behingoz egokitu dadila batera. Ospa dezala bere erara. Dena den, oraindik urtebete geraketan da berba egiteko, ez dezazue utzi azken hilabetera arte. Bertan geratu beharko litzatekeela uste dut baina, tira, aldatzea ere ez litzateke jaiaren heriotza. Ezta gutxiago ere.

XABIER LETONA "ATAXI"



**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatetzea**



**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK...**

Tfnoa: 71 46 08


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Ibxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikeme Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Laso, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubizarra, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Emakunde aldizkaritik, LOTURAK egina.

CARLOS MORGENROTH
FISIKOA

**NEURRIA
EGINDAKO
PROGRAMAZIOA**

• Zure behar eta nahietara egindako programarik egokiena egingo dizugu.

• Sistema eta ekipoei buruzko aholkularitza osoa.

- DENDAK ETA TABERNAK
- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK (PYMES)
- IKASTETXE ETA AKADEMIAK
- PROFESIONALAK

Foruen plaza, 1-6 ARRASATE
Tfnoa: 79 54 87

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

••••
**Gobernu eta
Hezkuntza
batzordeei**

San Andres Herri Eskolako obrak direla eta, lapurturiko materiala berreskuratzeko dirulaguntza eskabidea azterturik, gertaturiko jazoera ez dela Udal horren erantzunkizuna agertu diguzue.

Hau dela eta, harriduraz eta liluraturik zera diogu:

- Nire aurreko zuzendariari hauxe esan zitzaion Udaletxetik: armairuak eta materiala gela erdian ipintzeko. Txokoak eta ertzak libre utzirik, eurak arduratuko zirela dena txukun txukun uzteko.

- Neri, oraingo zuzendariari zera esan zitzaidan, lasai lasai joateko oportetara eta ez arduratzeko ezertaz, ez zela nire lana. Era berean eraikuntzak abuztuaren 15erako bukatuko zirela eta ondoren atezainak dena garbi utziko zuela irailaren lerako.

- Gure materiala armairuetan eta gauza asko kandauaz eta giltzapean gordeta genuen.

Irailaren lean eskolara iritsi ginenean dena hondakin eta zaborraz beterik zegoen, pasilu eta gela bat bakarrik ere ez zegoen erabiltzeko moduan. Hau ez bazen nahiko, ikus-entzuzko material asko falta zitzaigun eta sukaldeko armairuetako kandau guztiak forzatuta zeuden.

Honen aurrean zera diogu:

Eraikuntzen atzerapenen errua Udaletxearena da? Teknikoena ala Politikoen? Nork kontrolatu behar zituen eraikuntzak eta bertako sarrera-irteerak?

Guri gauza bat esan eta gero beste bat egin, oso normala da gure gizartean; zuek ere berdinak zarete?

Zuentzat autokritika bat egitea gehiegi eskatzea izango da, baina zuen buruak zuritzeko ez bota errua gure eskolari.

Hau ikusirik zera galdetzen dizuegu Arrasateko herriaren aurrean: zuentzat berdinak al dira Ikastetxe guztiak?

XABIER ARRUTI
SAN ANDRES ESKOLAKO
ZUZENDARIA.

••••
Zutik-en oharra

9-4-10-23ko Eginen argitaratutako zutabeak ez dio inongo mesederik egin "Zutik eta HBren artean egon daitekeen elkar-langiroari".

Arrasaten ez dugu inondik munizipalatarako erabakirik hartu eta aipatzen den "langiro" hori ez dugu inondik ere susmatu.

ARRASATEKO ZUTIK

Zuzenketa

Azken ARRASATE PRESeko kultura sailean, J. R. Garaik Vilallongaren "Fiesta" liburuaren gainean egindako salaketa argitaratu genuen. Artikulu horretan, "Onandia" etxeari buruzko aipamen bat egin da. aipatu beharrekoa "Mendia" etxea zen. Barka hankasartzea.

**Datorren astean
ARRASATE PRESS-ik ez**

Hori da. Domusantuko zubia tartean dela eta, datorren astean ez duzue etxean ARRASATE PRESS astekaririk jasoko. Hurrengoa, beraz, azaroaren 11n kaleratuko da. Bien bitartean, ondo izan!

OPARITZEKO GAUZAK

Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak



Ferrerías, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

Zer gogoratzen duzu gerra garaitik?



Pedro Otxoa
(68 urte)

Garai gogorak izan ziren eta jende asko fusilatu zuten. Guztiak errugabeak ziren, fusilatatuak izan zirenak eta fusilatzaileak.



Guadalupe Altube
(65 urte)

Aretxabaleta inguruan frentea zegoela eta, Oñatira joan ginen bizi izatera. Han bi urte egon ginen eta gosea pasatu arren, ez genuen gerra girorik bizi izan.



Ignacio Fernandez
(65 urte)

Oroitzapen txarrak ditut. Aitona hil egin zuten, aita kartzelan sartu, amari ilea moztu zioten...oso gogorra izan zen.



Oduli Ansuategi
(82 urte)

Gerra piztu zenean, Alzolako bainuetxean ari nintzen lanean sukaldari moduan. Urte gogorak izan ziren eta batez ere, gose handia pasatu genuen.



Anton Aranbarri
(62 urte)

4 urte nituela Arrasatetik Bilbora aldegin behar izan genuen eta ondoren, Frantziako errefuxatu zelai batera joan ginen. Beste arrasatear batzuekin batera egon ginen han.



Lurdes Urretxo
(74 urte)

Gauza asko. Anaia bolutario joan zitzaigun gerrara 19 urte zituela. Baina ni Errioxan bizi nintzen eta han gerrak eragin gutxi izan zuen.



Benito Alonso
(67 urte)

Gose galanta, hilketa asko, kriminal ugari, karlista eta falangista asko... urte txarrak izan ziren.



Maria Paunero
(76 urte)

Valladoliden bizi nintzen eta nahiko beldur pasatu genuen. Gero, gainera, gosea etorri zen.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

.....
URRATS

AHOLKULARITZA

 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

PRESS
ARRASATE
 Harpidetzak:
 77 08 15

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterrongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 28
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
Larunbata 29
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
Igandea 30
 Egunez eta gauzez:Español. Iturriotz.
Astelehena 31
 Egunez eta gauzez:Corcuera. Musakola.
Asteartea 1
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Egunez eta gauzez:Camacho. Oxirondo.
Asteazkena 2
 Egunez: Amezua. Sta. Marina.
 Egunez eta gauzez:Puy. Barrenkale.
Osteguna 3
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
 Egunez eta gauzez:Guallar. San Anto-

28 OSTIRALA


ZINEA
 "Alargunen gailurra" 7etan eta 9.30etan.

ANDALUZIAKO DANTZAK
 Ermuako El Rocio flamenco taldearen eskutik, andaluziako dantzak, Elorrioko Arriola kultur aretoan gaueko 10.30etan.

PINTURA ERAKUSKETA
 Arte ederretako 7 ikasleen lanak ikusgai Bergarako Kultur Etxean. Urriaren 28tik azaroaren 6ra arte.

MENDI ORIENTAZIO IKASTAROA

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko Orientazio ikastaroa antolatu du azaroaren 5-6 eta 12-13rako. Brinkolako Udal aterpean emango da ikastaroa, hastapeneko maila. Mendi Federatu karneta edukitzea ezinbestekoa da. Ikastaroa praktikoa eta teorikoa izango da.



29 LARUNBATA

ZINEA
 "Lobo" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ALEMANIAKO ABESBATZA
 Kurt Suttneren zuzendaritzapean, alemaniako Via Nova Chor Munchen abesbatzak kontzertua emango du San Frantzisko Elizan, arratsaldeko 8etatik aurrera.

GIMNASIA ERRITMIKA TXAPELKETA
 Gimnasia erritmikako Gipuzkoako txapelketa, Bergarako Labearieta kiroldegian, arratsaldeko 6etan

JUBILATU EGUNA ARAMAION

10.30etan herriko txistulariekin kalegira. Ordu berean kiroldegian fruta, perretxiko eta barazki produktuen erakusketa. 12etan Meza San Martin deunaren elizan. 12.45etan dantzarien saioa. 13.30etan nekazal produktuen lehiaketaren sari bana-keta. 2etan bazkaria trikitilari eta bertsolariek alaituta.

TRIKITILARI EGUNA ARAMAION

Lehen trikitilari eguna. 11etan kalejira haranean zehar. Ordubatean trikitilariak bil-tzea Ibarra. 2.30etan bazkaria. 5.30etan trikitilari saioa frontoian. Antolatzaileak: Arabako trikitixa elkar-tea. Laguntzaileak: Aramaio-ko Udala eta Eroski.

TAILA IKASTAROA

Taila ikastaroa azaroaren 5etik aurrera. Goi mailakoa, 30 orduko ikastaroa. Uriburu kaleko tailerrean emango dira klaseak. Talde mugatuak. Argibide gehiagotarako eta izena emateko, dei egin gauez telefono hauetara: 794079 (Felix) eta 792105 (Xanti).

30 IGANDEA

ZINEA
 "Lobo" 5etan 7etan eta 10etan.

AHTREN AURKA
 Abiadura handiko trenaren aurkako mendi ibilaldi informati-boa Antzuolan, irteera Herriko Plazatik goizeko 10etan.

HAUR ZINEA
 "Navigator: Una odisea en el espacio" filmea Amaia antzokian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 200 pta.


VIII. FAMILI ASTEA

Astelehena 7. Hitzaldia: "Familia zikloa Etapa bakoitzeko aukerak eta zailtasunak". Hizlariak Mikel Elizondo eta Joseba Urkiola. Arratsaldeko 7.30etan San Viatorren. Asteartea 8. "Familia, hezitze tokiak". 7.30etan San Viatorren. Asteazkena 9. "Kristautasunaren garrantzia gaur egungo familietan" 6'30etan San Viatorren.

31 ASTELEHENA

ZINEA

"Lobo" 7etan eta 10etan



1 ASTEARTEA

ZINEA

"Lobo" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

DOMUSANTU EGUNA



DOMUSANTU EGUNA ASTEARTEAN.

PRODUKTU BIOLOGIKOEI BURUZKO HITZALDIA

Gaiak: "Produktu biologikoen kontsumitzaileen elkarte" eta "Produzitzaile eta kontsumitzailearen arteko harremana". Hizlariak: Donostiako Otarra elkarteko idazkaria eta Tomas Larrañaga, Biolur elkarteko lehendakaria. Azaroaren 15ean Monterronen, arratsaldeko 7etan.

AEDKO LIBURUA SALGAI

Arrasate 93 lehiaketan argazkia diapositiba, bertso-paperak, poesia, ipuina eta komiki sailetan lan sarituekin borobildutako liburu txukuna salgai dago Garbehera eta Hire liburudendetan. Prezioa: 1.000 pta.

2 ASTEAZKENA

ZINEA

"Lobo" 7etan eta 9.30etan.

GURASO BILERA

REM eko 1. eta 2. mailako ikasleen gurasoek bilera izango dute San Viatorren. Ordua arratsaldeko 6etan.

ZERAMIKA IKASTAROAREN AURKEZPENA

Lenitz zeramika eskolak, hastapen ikastaroa antolatu du. Iraupenak 60 ordu. Astelehen, astearte eta ostegunetan 6etatik 9etara emango dira klaseak.

3 OSTEGUNA

GURASO BILERA


San Viatorren, 2. hezkuntzako lehen zikloko 7. eta 8. mailako gurasoentzat bilera arratsaldeko 6etan. Eta Ostiralean, Batxilergo mailako gurasoentzat bilera San Viatorren 6etan.

KUTXA FUNDAZIOAREN IKASTAROAK

Enplegu-teknikei buruzko ikastaroa, azaroaren 5ean eta 12an, udal Euskaltegian izango da goizeko 10etatik ordu bietara. Prezioa: 1.500 pta. IKasketa tekniken ikastaroa, 1995eko urtarrilaren 14tik otsaiaren 11ra. Goizeko 10etatik ordu batetgara klaseak. Prezioa 2.500 pta. Ikastaro hauetan izena eman nahi izanez gero, Arrasateko Kutxaren bulegora jo.

KOMIKI TAILERRAK

Azaroaren 5- 12 -19 eta 26an 13 urtetik gorakentzat komiki tailerrak antolatu dituzte Monterronen. Udal liburutegiak antolatu dituen komiki tailerretako irakasleak: Fernando Goñi, Asisko Urmeneta, Agurtzane Villate eta Iñaki Martiarena izango dira.



“Elikaduraren munduarekin konprometitu dagoen aldizkari honek ematen didan aukera aprobetxatu nahi dut Ospitaleetan gaixoei jaten emateko duten era salatzen. Gaixoaren elikadura eta patologiarik dagozkion beharrek asko gutxitzen dute ospitalean eman beharreko denbora eta horrela kostu ekonomikoak ere gutxitu egiten dira. (...)

Hori konpontzeko Dietetika Sailak jarri beharko liriteke Ospitaleetan eta horietan baliapide material eta pertsonalak ere jarri. (...)

Duela sei urtetik hona, EHU-UPVk Giza Dietetika eta Elikadurari buruzko titulazioa ematen du eta ordua da kontsumitzaileek ere ospitalera doazen bakoitzean merezi duten tratua eskatzeko, eta nutrizioari dagokionez ere adituen atentzioa jasotzeko. Gainera, OMS eta Ueren gomendioak ere badaude, ospitaleko 30-60 oheko dietista bat izatea aholkatzen dutenak”.

Juan Pablo Juez arrasatearrak

ARGIA

“Telebistaren mundura dedikatu aurretik, modelo moduan egin zituen saiakera batzuk eta Arrasateko (Gipuzkoako) injinerutza enpresa batean ere egin zuen lan. Han bertan, herri telebista batean hasi zen telebistako lan ezberdinak egiten: ‘Kate hartan denetik egin nuen, nire programak neuk zuzendu, produzitu eta aurkezten nituen, eta horrek soltura handia eman zidan kamararen aurrerako eta baita esperientzia handia ere’.

(...)


“Telebista txikietan gehiago iristen da jendearengana, eta atzean laguntza ematen dauden guztiak ez ahazten ikasten da horrelako lekuetan”.

Anne Igartiburuk



Zenbat zabor jaso zenuten Degurixan?

Pare bat ordutan 25 poltsa bete genituen zaborrez baina egindako lana gehienbat azalekoa izan zen. Bistan zegoen zikinkeria jaso zen; zulo eta txoko izkutueta zaborrak ez ziren atera. Beste urte batzuekin konparatuz aurten gutxiago jaso da, baina kontutan izan behar da, gabonetan federazioko garbiketala taldea Degurixa garbitzen ibili zela eta han bakarrik 9 tonelada zabor batu zituztela. Talde hori bederatzita hilabetean Gipuzkoako mendiak garbitzen ibili zen eta 100.000 kilo zabor batu zituzten. Ikusten denez, oraindik ere falta da jokaera aldatetarik mendiaren zainketari dagokionez. Mendira goazenean eramaten dugun guztia behera jeitsi behar dugu, mendian ez da ezer utzi behar. Eta noizbait txabolaren batean egunak pasatzen ditugunean ere, inguruak garbitu egin behar dira. Gehienbat zabor gehien txabola inguruetan batu izan dugulako aipatzen dut hori.



Aitor Zubiaga

Besaide M. E. ko partaidea

Parte hartzearen gainean, berriz, nahiko txikia izan zela esan dezaket. Guztira, Murruxiko eta Besaidetik, hogeitamaren bat lagun hurbildu ziren Degurixara garbiketala lanak egitera eta gehienak gazteak izan ziren. Gaur egun jende askok hitzegiten du ekologiari buruz, baina ekintza konkretuetan parte hartzeko ordua helitzean, jendeak atzera egiten du.

Hala ere, apurka-apurka jendea kontzientzia hartuaz doala esan daiteke, nahiz eta oraindik mendiarekiko sentsibilizazioaren gainean badagoen zer egin, batez ere gizakiak eramandako zaborrak jasotzen direla kontutan izanik. Domekako ekintza ere batez ere testimoniala izan zen, baina jendea garbitasunaren inguruan pentsarazteko nahia dago horren atzetik. Jendeak garbitasunaren inguruko kontzientzia hartzea da gure helburua.

LARUNBATETAN

INGELESA

IKASTAROAK HASTEKOTAN DAUDE! EMAN IZENA, ORAINDIK EGIN EZ BADUZU!

PREZIO BEREZIAK

ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU

CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

AGRICENTRO OTXOA, S.L.

- **NEKAZARITZA:** haziak, ongariak, produktu agrokimikoak, e.a...
- **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria, e.a...
- **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a...
- **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, txori eta arrainentzakoak)


Musokolako Industrialdea, z/g ©: 79 17 79 / 79 86 70
ARRASATE

Canal+ Atxabalpen

Zapatuan Canal+ kate pribatukoak Atxabalpera etorri ziren, Mondrako entrenatzaileari elkarrizketa egitera. Zarata handia atera zuen bisitak eta horregatik, normalean baino jende gehiago hurbildu zen partidua ikustera. Lehen zatian, entrenatzailearen mugimendu guztiak grabatzen izan zen kamara eta bigarren zatian, partiduko irudiak hartu zituen. Seguruenik datorren asteleheneko saioan botako dute entrenatzaile bosniarrari egindako elkarrizketa.

Errusiako orkestra

Domekan Errusiako Orkestraren doinuak entzun ziren Amaia antzokian. Kontzertuak bi ordu baino gehixeago iraun zuen eta bertan izan zirenen berbetan, kalitatez oso ona izan ei zen. Domekan hauteskundeak izan zirela kontutan izanda, gainera, kontzertua entzuteran jende dexente hurbildu zela esan daiteke. Igandekoak bi kontzertu eman ditu Arrasaten.

**Gazteak Naturan**

"Gazteak Naturan" V. argazki lehiaketaren emaitzak jakin ziren joan den ostiralean. Guztira 86 argazki aurkeztu ziren eta 40 lagunek hartu zuten parte. 14 urtetik 20 urte bitarteko kategorian, Unai Etxebeste arrasatearrak lehen saria jaso zuen eta bigarrena, Oskar Yenesek (argazkian ageri dira biak). 21 urtetik 35 urtera arteko taldean eta txuribeltzean, lehen saria Juan Jesus Huelva, Algeciraskoak eraman zuen. Kategoría berean baina koloretan, Roberto Gonzalez Sestaokoak jaso zuen lehen saria.

Legebiltzarrerako hauteskundeak

Arrasaten normaltasunez burutu ziren 5. Legebiltzarra osatzeko egin ziren hauteskundeak. Boto kopuruari dagokionez alderdi guztiek egin zuten gora. Abstentzioa, berriz, %39'57koa izan zen. Hilabete gutxi barru egingo diren udal hauteskundeetan eta azken emaitzak kontutan izanda, HBk zinegotzi kopuruari eutsi egingo lioke, EAJk 5 izango lituzke, PSE-EEk 4, EAK 3, IUK 2 eta PPK 1. Bukatzeko aipatu, Arrasaten 36 boto lortu zituela Unidad Alavesa alderdiak ere.

HAUTESKUNDETAKO EMAITZAK ARRASATEN

BOTOAK	3.201	2.720	2.296	1.849	972	523	54	
%AK	%26,58	%22,59	19,07	15,36	8,07	7,88	0,45	

Perretxikoak ikusgai

Larunbat goizean, San Viatoriko ikasleek basoan bildutako perretxikoak jarri zituzten erakusgai Sebero Altube plazan. Aurtengoaz, perretxiko lehiaketa antolatu duten laugarren aldia izan da. Perretxiko ugari izan ziren ikusgai eta Bernabe Mugika, mikologia adituak, erakusketaren maila ona azpimarratu zuen. Mondrauetarrak ere hurbildu ziren San Viatorreko ikasleek batu zituzten perretxikoak ikustera.

JAIOZAK

- Maite Soriano Berriolope. Urriaren 15ean.
- Imanol Sanchez Nuñez. 19an.

EZKONTZAK

- Jose Rafael Ramos Llamas & Maria Jose Fernandez Leon. Urriaren 15ean. Elizaz.
- Migel Angel Aristimuño Oruna & Maria Resurrección Murua Larrea. 15ean. Zibilez.

HILDAKOAK

- Isidro Garitano Aldekoa. Urriaren 16an. 79 urte.
- Lucia Rueda Corral. 11ean. 91 urte.
- Eusebio Beiztegi Intxausti. 18an. 74 urte.
- Felipe Baladron Martin. 20an. 73 urte.
- Dionisio Aranguren Astola. 22an. 96 urte.

GAUR ZABALTZEN DUGU!**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea**


- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA

- HAURDUNALDIA
- JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxekoandre eta 3. adinakoentzat
(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean) ☎: 76 59 39 / 76 59 72 FAX: 76 25 72



MIREN ARREGI *

Euskaltzaindiaren XIII. Batzarra

Pasa den 3an eman ziztaion hasiera Leioako kanpusean. Jean Haritxelhar euskaltzain buruak eman zion hasiera euskara batuaren 3. mugarrizat jo zuen batzar honi.

1968an Arantzazun ekin ziztaion euskara batuaren ibilbideari eta 26 urte haue-tan beste bi izan dira batuaren inguruko batzarrak. Arantzazun egin zen haren atzetik, 10 urte geroago Bergaran eta azkenik Leioan oraingo hau, horregatik 3. mugarri.

Arantzazun hartutako erabakiak bide zuzenetik doazela argi asko ikus daiteke. Bergarako ekitaldiak 250 lagun bildu zituen, Leioako hontan, oster, 400 lagunek egin dute matrikula.

Komunikabideetan izan duten arrakasta ere aipatzekoa da, aste guztian zehar egunkarietan irakurri eta irrati-telebistetan entzun ahal izan ditugu Batzarraren berriak.

Eta guk, AEDk eta gure

moduko elkarteek, zer dio-te? Beharrezkoa ote dugu euskara batua, gure helburuak betetzeko? Ez ote da nahikoa geure herrian egiten denarekin? Eta hori egin-da?

Ez, ez dugu nahikoa. Euskarak aurrera egingo badu bizitzaren arlo guztietan izan behar dugu erabilgarri. Etxean eta kalean, eskolan eta unibertsitatean, empresa handi eta lantegi txikietan, guztietan behar dugu euskara erabili. Eta horietan guztietan sartzen eta erabiltzea lortzen dugu.

“Euskarak aurrera egingo badu bizitzaren arlo guztietan izan behar dugu erabilgarri”

nean, euskarak ez du gurea moduko elkarteen beharrik izango.

Nola heldu, ordea, arlo horietara guztietara, Miren Azkarate euskaltzainak zioen bezala, etxera heldu eta berak “zapatillak” jantzen dituen bitartean Xarrinton edo Oihartzabalek “pantufiak” edo “xanpinak” jantzi-ko dituzten bitartean? Zientzia eta teknika arloko definizio eta hiztegiak nola erabili behar ditugun ez baldin badakigu?

Batasunaren bidean aurrera eginez, mugak apurtuz eta Iparralde-Hegoaldeak batasunaren urratsak batera emanez lortuko dugu.

Honek, berriz, zer esan nahi du? Gure herrikoa, etxean beti egin izan duguna egitea, ez dela bide zuzena? Guztiok batua besterik ez dugula ikasi eta egin behar?

Bata eta bestea.

Gure etxekoa, herrikoa ondo egiten ikasi eta hitz eginda. Eta gure txokokoak ez direnekin, inongo eragozpenik gabe, harremanetan aritu eta maila guztietako ikasketak egin ahal izateko, ikerketetarako, empresa harremanetarako e.a. alfabetatuz eta batua ikasiz. Ikasten ari direnekin praktikatzeko prestatuz. Horrela lortuko dugu Euskal Herria benetako “euskal-herri” izatea.

Leiruten eta berba egiten ikasi, eta dakixenak egin deixela.

AEDKO LEHENDAKARIA

USTEAK USTE

PORTZENTAIA KONTUA

Legebiltzarrerako hauteskunde-entzuten emaitzetan oinarrituta datu positibo bat kaleratu du Emakunde-k: Erakunde horretan izango diren emakumeen portzentaia %6,6an gehitu da aurrekoen aldean, eta legebiltzarkide guztien artean %24a izatera iritsi dira emakumeak. Alderdi-ek gomendatutako %25era ia iristen da. Ondo.

Azterketa bera gure Udalean eginda, zinegotzietan %28,5 dira andraku-meak, 21etik 6. Hobeto. Eta horrelakoak gogoratzeko une txarra ez dela egin dut neure artean, oster, zerrendak egiten hasteko ordua iritsi dela ikusita. Emakumeek alderdiaren barruan lan egiteko ez baina zerrendan agertzeko eragozpen asko jartzen dutela entzun nion behin politikari bati, eta ez dakit alderdi guztien arazoa izango den edo zer.

Kontua da zerrendak egiten hasiak direla Arrasateko alderdien jantak eta horretan ahalagin berezia egitea ez legokela gaizki. Emakumearen aldeko sailak eta berdintasunerako agenteak ere aukera aparte, neuk pentsatu. Eta, beno, zerrendak osatzea, portzentaiari begiratzea ondo dago, baina emakumezkoak jartzean, aukeratu izateko moduko postuetan jartzea ere...

ARANTZAZU LOIDI

**ARTOLA
KOMERTZIALA**


Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta


Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Airearen kalitatea aztertzen du gailuak.

Kutsadura neurtzeko gailua jarri dute herrian

Urriaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako ingurugiro sailak Arrasatera ekarri zuen egurats kutsaduraren neurgailu ibilkorra. Airearen kalitatea ikertzea helburu duen gailua, erremolke baten barruan dago eta azken hori Garibaiko aparkalekuaren ondoran dago kokatua.

Gailuak bi lan egiten ditu. Batetik, sustantzia kutsagarrien maila aztertzen du, baina gainera, baldintza meteorologikoen (airearen abiadura eta norabidea, tenperatura, hezetasuna eta presioaren) berri ere jasotzen du. Sustantziei dagokienez bosten jarraipena egiten du: sufre dioxidoarena, suspentsioko partikulena (keak), nitrogeno oxidarena, karbono monoxidoarena eta ozonoarena. Laborategiak automatikoki egiten du lan. Aire hartzen da eta ordenagiluek horren azterketa egiten dute. Bi egunetik behin, datuak jaso dira eta Bilboko laborategi batetara eramaten dira, han jarraipen zehatza egiten dute eta. Ezaugarri meteorologikoak eragina izan duten jakiteko hartzen dira bakarrik. Ikerketa hori egiten ari diren

esanetan, Arrasateko kasuan, lantegi eta autoek botatzen duten keak kutsatzen dute airea, baina batez ere industria eta etxebizitza asko dagoen bailaran bizi garela kontutan izanda, airearen kalitate nahiko ona eia da.

Neurgailua datorren astera arte izango da Arrasaten eta ondoren beste herri batetara eramango dute. Hala ere, eguratseko azterketek izango dute jarraipenik. Datorren hilabetean hasieran Ingurugiro Sailak eguratseko kontrol kabina jarriko du Lau Bideko etxebizitzak dauden inguruan. Neurgailua ez da orain dagoena bezain efikaza izango, baina horrek ere aurrez aipaturiko bost sustantzia kutsagarrien neurketa egingo du. Momentu oro datu guztiak Bilbon dagoen laborategiak jasoko ditu eta anomaliaren bat gertatuz gero, abisua emango litzateke. Inguru honetan Eibarren eta Arrasaten jarriko dira eta 3 metro luzera eta 2 altuerako edukiontzi baten barruan egongo da neurgailua. Baliteke gainera, azterketa meteorologikoak egiteko dorrea ere jartzea.

Museo Industrialia

Gabonetan erakusketa egingo da museo industrialaren proiektua jendaurrean aurkezteko. Ekintza horretara 2 milioi pta zuzendu ditu Udalak.

Lau Bide eta Ibai-Arte

Lau Bideko parkingaren erabilera bultzatzeko, hitzarmena sinatu dute Udalak eta Ibai Arte elkarteak. Hitzarmenaren arabera elkarteko dendatan izango diren txarteekin, dohainik aterako da parking-eko zerbitzua. Txartelak 3.000 ptako erosketa egiteagatik emango dira eta trukean ez da ezer ordaindu beharko lau orduz autoa aparkalekuan edukitzeagatik.

Maritxu Batzordearen oharra

Jose Mari Astigarraga, parrokoak, "El Diario Vasco" egunkarian egindako salaketei erantzuteko, adierazpen batzuk egin nahi izan dituzte Maritxu Batzordekoek. Adierazpen haietan, batzordearen jarrera "itxia eta zorrotza" izan zela esaten zuen parrokoak. Batzordearen esanetan, Maritxu lekuz aldatzeko jarritako arrazoi estetiko eta arkitektonikoez ez dute funtsik. Euren ustez, Maritxu lekuz aldatzeko erabakia jaiari nortasuna eta indarra kentzeko modua da.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Emakumearen parte hartzea bultzatzea da helburua.

Arrasateko emakumeari zuzendutako gida laster kalean

Denbora gutxi barru ikusiko du argia Udaleko emakumearen sailak Arrasateko emakumearentzat egin duen gidak. Gida horretan, arlo desberdinetan emakumearentzat eskaintzen diren zerbitzuak zeintzuk diren eta non dauden azalduko da eta emakumearen parte hartzea bultzatzea da helburua. Rosa Mondragon, emakumearen berdintasunerako agentearen berbetan, "gizarteko arlo desberdinetan gizonaren parte hartzea handia da, baina ez da horrela gertatzen emakumearen kasuan. Gidaren bidez, ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditugu emakume guztiak".

36 orri izango ditu gidak eta atal desberdinetan banatuko da. Emakumeari zuzen-

dutako zerbitzu sozialak zer diren eta premiazko egoeretan emakumeek nora jo dezaket; hezkuntzan, euskararen eta prestakuntza eta enpleguan zein aukera dituzten eta zein kultur talde eta kirol zerbitzu dauden azalduko zaie besteak beste. Zelan ez, emakumearen osasunaz lotura duen informazioa eta emakume elkarteen berri ere emango du gidak.

Liburuxkak egiteko 480.380 pta gastatuko dira eta bi hizkuntzetan, euskaraz eta gazteleraz, banatuko dira etxez-etxe. Bestalde, datorren hilean emakumearen egoera sozio-ekonomikoari buruzko ikerketa egiten hasiko da Udala. Ikerketa egiteko langile bat kontratatuko da sei hilabetetarako.

AEK

AEK eguneko zozketan, honako zenbakiak izan ziren sarituak: 1. saria, 24.113 zenbakiarentzat; 2. saria 963 zenbakiarentzat eta 3.a 25.761 zenbakiarentzat.

Elkarri

Bake-Topaketa Partehartzaileen kanpainaren barruan, etxez-etxe esku-orriak banatzen hasiko da Arrasateko Elkarri taldea. Herritarren parte hartzea bultzatu eta iritzi eta iradokizunak jasotzea da esku-orrien helburua. Orri bakoitzean hamar gai aipatzen dira eta herritar bakoitzari iritzia ematea eskatzen zaio. Ondoren bi aukera izango dira: orria herriko hainbat tokitan izango diren buzoietan (Hire, Izkiña, Txitxinpe, Garai eta Hostal Musakolan) uztea edo postaz bidaltzea.

Dirulaguntzak


AEDko gazte sailari 400.000 pta emango dio Udalak ekintzak antolatzeko. Txatxilipurdiri, berriz, 750.000 pta.



GRONDO eletrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



San Kristobalگو panteoien salmenta bultzatu nahi du Udalak.

Nitxoak panteoiaik baino gehiago saltzen dira

Mondrauetarrek gurago dute 10 urterako zerbitzuak barne aurrakusten dituen nitxoak erostea, panteoia erostea baino. Dagoneneko 80 nitxo saldu dira eta panteoiaik, berriz, askoz gutxiago. San Kristobalگو kanposantuan nitxoak "erostea" (10 urterako izaten da bakarrik) 45.275 pta kostatzen da eta 4 gorpurentzat tokia duen panteoia, berriz, 940.500 pta. Gainera, urtero 5.225 pta ordaindu behar dira panteoiaeren mantenimenduaren truke.

Udalak panteoien salmenta bultzatu nahi duenez, datorren urtean nitxoaren prezioa %17 igoko da eta panteoiaena, berriz, lehen bezala geratuko da. Gaur egun dauden panteoietan, 348 enterramendutarako tokia dago eta horietaz gain beste 256 nitxo dau-

de. Aurrerantzean gainera, panteoi eta nitxo gehiago egingo du Udalak. Azkenaldian arrasatear asko hurbildu da Udaletxera San Kristobal kanposantuaren inguruko informazioa eskatzera eta batez ere prezioen gainean galdetzeraz. Interes horri erantzuteko, Udalak diptikoak banatuko ditu etxex-etxe.

Aldain panteoia duten familiartekoei, bestalde, apelazioa jarri dute E.Hko Auzitegi Nagusiaren azken erabakiaren aurka. Datoren 10 urteetan enterramendu gehiago egiteko debekua eman zuen Auzitegiak baina familiartekoei enterramenduak egiten jarraitzea eskatzen dute. Azken gertakizunen berri emateko, panteoia duten familiartekoentzat bilera informatiboa egingo da azaroaren 16an Monterronen.

Intsumisoei epaiketak

Aste honetan

Arrasateko lau intsumisok izan dute epaiketa: Unai Bergaretxe, Iñaki Izarzelaia, Aitor Garai eta Ander Santiagok. Lau hauetaz gain, urrian zehar herriko beste lau intsumisok izan dute epaiketa. Asteartean, Tunantes Del Norte antzerki taldea Donostiako entzutegian izan zen Ander Santiago, taldeko partaidea, epaitu behar zutelako. Epaietan zehar taldekideek zabaldu zuten pankartak horrela zioen: "Hau fartsa bat da, antzerkia, intsumisioa". Epaiak salatit ateratzeko agindua eman zien taldekideei baina kanpora atera eta beste ekintza batzuk egin zituzten epaitegi guztian zalaparta sortuz.

Zuzenketa

Institutoan D ereduan 41 ikasle hasi direla ikasten agertu zen aurreko A. PRESSEN. Datu hori ez da zuzena, B.B.B.ko lehen mailan 113 ikasle ari dira D ereduan ikasten.



Zenbaki
Aholkularitza

ADI, KOOPERATIBAK!

Estatuto Sozialak legedia berrira egokitzeko aholkularitza eskaintzen dugu!

Basabe Industrialdea

Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Tfnoak: 79 88 75 / 79 75 99



Juantxu Axpek eta Petra Mari Indak zilarrezko eztaiak bete dituzte. Bikotea arrasatearra da eta duela 25

urte San Juan Bataiatzailearen elizan ezkondu ziren. Zilarrezko eztaiak ospatzeko Bedoñako elizan izan zuten meza

urriaren 11n eta Bergarako Lasa jate txean bazkaria. Familiartekoekin batera primeran pasa zuten eguna. Zorionak!

Udaletxeko arkupetan plaka bat ipini dute nibelazio seinalea izenez ezagutzen dena. Eta batek baino gehiagok aldetuko zion bere buruari zertarako balio duen. Gipuzkoako lurralde historikoaren eremuan mapagintza arloko edozein motatako lanak egiteko erabiliko da eta mapagintza azpiegitura burutzeko beharrezkoa da. Nibelazio sare hauek sarbide erraza duten toki publikoetan eta eraikuntza bakarretan kokatu dituzte, herri bakoitzean.



“PAL”

**búrdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Erdiko kaleko Kuku janari
dendako jabeek eta
bezeroek afaria izan zuten
zapatuan. Afaria egiteko ideia
Roman Lopezek izan zuen.
Roman Kuku dendako
bezeroa da eta egunero

erosketak han egiten dituen
jendearen artean afaria egitea
bururatu zitzaion. Pentsatu
eta izenemateko zerrenda
jarri orduko, 63 lagunek
eman zuten izena. Beraz,
Leintze elkartean 1.200

ptaren truke bezero mordoa
elkartu zen eta primeran
pasatu zuten gaua. Afariko
menua ezin hobea: espa-
rragoak, langostinoak, perre-
txiku rebueltoa, bakailaua, eta
fruta-mazedonia.



Eva Azkarate eta

Angel Mari Capellen

Udalako San Esteban
elizan ezkondu ziren
urriaren 8an. Bazkaria
Zumarragako Etxebarri
jaketxean egin zuten
eta ezkon-bidaian
Tunizian izan dira.
Zorionak!

IZEN PROPIOAK

● **Jesus Catania**, MCC-
ko Lehendakari ordea,
ANFEL eko presidente izen-
datu dute. Jesus Catania
1942an Altsasuan jaio zen
eta Injinerutza Industrial
ikasi zuen Madrilen. 1968
hasi zen Coprecin lanean eta
bertako Gerentea ere izan
zen. 1883-93 bitartean Fa-
gorreko Gerente postua be-
te zuen eta 1980tik 88era
Ikerlaneko presidente lana
ere bete zuen.

● **Jose Mari Mendiza-
bal** 59 urteko arrasatearra,
Leintz Bailarako Artzipreste
izendatu dute. Datozen 3 ur-
tetarako. Jose Marik Tomas
Madinabeitia ordezkatu du
lan honetan. Eskola Politek-
nikoan klaseak eman ditu
Jose Marik eta une honetan
Eskoriatzako parroko ere
bada.

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25


**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDEAK
300.000 ptatatik

Futbito 94-95

ZALDIBAR
ZALDIBAR
ZALDIBAR

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Normaltasuna nagusi Zaldibarren

Zaldibar txapelketa bide onetik eta arazo barik doa aurrera. Aestetik astera talde sendoenak euren nagusitasuna erakusten ari diren bitartean, petraltxoenak bururik ezin al txa dabilta eta gero eta atzerago geratzen ari dira. Baina jokua horrelakoa da; batzuek galdu egin behar dute besteek irabazteko.


Txapelketa hasi zenetik astebururo izan ditugu neurketak eta datorren asteburuan ere horrelaxe izango da. Zapatuan eta domekan futbitoaz gozatzeko aukera paregabea izango

dugu Zaldibarren, eta hori gutxi balitz, astelehen eta martizenerako antolatzaileek neurketa gehiago ipini dute. Kontuak kontu, datorren jardunaldiko neurketak 4 egunetan zehar banatuko dituzte eta norgehiagoka guztiak Zaldibarren izango dira, Iturriperi beraz, jai emango diote. Bestalde, abenduko zubian erabaki dute zer egin. Abenduaren 3-4 eta 10-11ean, hau da, asteburuetan txapelketak ez du etenik izango eta normaltasun osoz jokatuko dira neurketak.

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konprometzu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETA**

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
CERV. LENIZ	3	3	0	0	17	2	6
SALENKO Y KONP	3	3	0	0	18	4	6
BUKANAK	3	3	0	0	17	8	6
ADELAIDA	3	2	1	0	14	9	5
ZULOAK	3	2	1	0	12	10	5
FOSFOROS	3	2	0	1	12	4	4
HIREI	3	2	0	1	29	11	4
ZOTZ	3	1	2	0	9	7	4
LOS DALTON	3	2	0	1	16	15	4
GANBELAS	3	1	1	1	11	7	3
ATERPE	3	1	1	1	12	11	3
ARRASATE KIROLAK	3	1	1	1	14	13	3
STRAUSS	3	1	0	2	10	13	2
KRISKIBALDA	3	1	0	2	7	13	2
EZTANDA EGIN ARTE	3	0	2	1	7	24	2
FRAGUEL GOL	3	0	1	2	10	13	1
ASTOEN VILLA	3	0	0	3	11	18	0
INSERT COIN	3	0	0	3	4	15	0
BAYER LENITZ	3	0	0	3	3	19	0
ILUNA TABERNA	3	0	0	3	3	20	0

B taldea


	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	3	3	0	0	20	4	6
LOS DIMY	3	3	0	0	28	6	6
TXEYENEX	3	3	0	0	23	6	6
UGLYS	3	2	1	0	24	8	5
NUEDO TAB	3	2	1	0	17	9	5
S. UGARTE	3	1	2	0	12	9	4
BERANGO SUL	3	2	0	1	8	7	4
PETROLEROS	3	2	0	1	13	7	4
PEPELUS	3	2	0	1	8	7	4
ARRASATE Z	3	1	1	1	14	16	3
NO COMENT	3	1	1	1	8	13	3
TOTEM	3	1	0	2	11	11	2
DANOK LAG	3	0	2	1	9	10	2
ANBOTOSTE	3	1	0	2	10	16	2
TOVARITX	3	1	0	2	6	11	2
MONTERREY	3	0	1	2	7	11	1
EZKINAKO	3	0	1	2	4	15	1
PUB PEOPLE	3	0	0	3	7	23	0
ORKATZ	3	0	0	3	7	24	0
LA BANDA	3	0	0	3	7	30	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	3	3	0	0	18	2	6
AUTOS MURU	3	3	0	0	17	3	6
EQUUS	3	3	0	0	12	3	6
NABARROS	3	3	0	0	17	6	6
ORLANDO	3	3	0	0	17	6	6
LORATEGI	3	2	0	1	5	4	4
KE OXTIAS	3	2	0	1	14	12	4
KOKA JUN	3	2	0	1	10	9	4
FRANTZISK	3	2	0	1	11	10	4
EXC. LETE	3	1	0	2	9	5	2
ARTZANKOS	3	1	0	2	9	11	2
BODISCA	3	1	0	2	9	11	2
PERRAHOTSA	3	1	0	2	6	9	2
LEYA	3	1	0	2	9	14	2
POTROSORRI	3	1	0	2	10	17	2
BANEUKO	3	0	1	2	4	8	1
JOTAKABAU	3	0	1	2	5	15	1
FOT IMAGEN	3	0	0	3	10	16	0
D.K.B	3	0	0	3	4	15	0
TXOKO TAB	3	0	0	3	3	23	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	3	3	0	0	25	4	6
A.C SURCOS	3	3	0	0	24	7	6
OJO AVISORE	3	3	0	0	15	7	6
D.A IRIZTU	3	2	0	1	16	6	4
BUTANGAK	3	2	0	1	15	7	4
MIKELOS	3	2	0	1	19	12	4
BORROCK'N	3	2	0	1	11	7	4
LAUTHERB.	3	2	0	1	12	10	4
LOS HEREDIA	3	2	0	1	12	14	4
BZ SISTEMAS	3	2	0	1	5	5	4
SOKOAKOAK	3	1	1	1	6	9	3
MOTZ	3	1	0	2	13	9	2
ALTZA PORRU	3	1	0	2	6	6	2
KAKAJAURI	3	1	0	2	9	11	2
ANORTHOSIS	3	1	0	2	6	13	2
SUKAR	3	1	0	2	8	13	2
TRONKOTEAK	3	0	1	2	5	19	1
ELISABETH	3	0	0	3	4	15	0
RESAKAS	3	0	0	3	5	25	0
TEODOLITO	3	0	0	3	3	20	0




Bidaia

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Karlos Oianguren
Belarrifako, kate eta eraztunen konponketa
Metalak urtu eta eraldatzea
Biteri, 13 behea Tfnoa: 79 34 26



Bi partidu gomendatu behar dizkizuegu. Batetik Artzankos Udalaitez eta Irati STS-ren artekoa larunbatean jokatu da 4etan, famili arteko neurketa. Bestetik Fosforos eta Cervecería Leintzek jokatu behar dutena: Igandean 11etan. Ikusteko moduko bi partidu.

BELARRIRA

◆ **Zubirik ez.** Aste honetan neurketa guztiak Zaldibarren jokatu dira eta zubia dagoela eta, astelehenean eta asteartean ere partiduak jokatu dituzte. Gainera, igandean eta astelehenean neurketak gaueko 8etan jokatu dira; ordu horretan jokatzeko duten lehen aldia da.

◆ **Adinak.** Zalbibarren jokatzeko ari diren jokalarien artean zaharrena Jesus Apraiz dugu, 47 urtekoa. Gazteena, berriz, Gorka Zubillaga 16 urtekoa. 16 urteko jokalaririk gehiago ere badagoen arren, Gorka 78ko abenduan jaio zenez, bera dugu gazteena.

◆ **Fraguel Gol.** Fraguel Gol taldeak larunbatean goizeko 9etan epaitu behar zuen partidua eta epaile bat agertu beharrean 4 agertu ziren. Beste talde batzuk jarraitu beharreko eredu, zalantza barik.

◆ **Golak.** 3. jardunaldian guztira 282 gol sartu dira. Gol gehien sartu duen taldea A.C Surcos izan da 13 golekin.

EMAITZAK

A Taldea

- Astoen bila 3 - Kriskibalda 4
- Bukanak 5 - Bayer Lenitz 2
- Salenko Y Konpania 5 - Strauss 2
- Fosforos 3 - Iluna Taberna 1
- Los Dalton 1 - Cervecería Leniz 8
- Gabelas 2 - Zotz 2
- Insert coin 3 - Hirei 8
- Adelaida haizea 3 - Fraguel Gol 2
- Eztanda egin arte 3 - Aterpe 3
- Arrasate Kirolak - Aterpe 3

B Taldea

- Pepelus 2 - Petroleros 0
- Orkatz 1 - Los Dimy 13
- Anbotoste 4 - Monterrey 2
- No Comment 2 - Ezkiñako Hontzak 2
- Arrasate Zoo 2 - Uglys Txinato 12
- Tovarixt 1 - Txeyenex 3
- Danak Lagun 2 - Suministros Ugarte 2
- La Banda 1 - Totem 7
- Nuevo taberna 4 - Berango Sukaldeak 1
- Trikiti 4 - Berango sukaldeak 1

C Taldea

- Nabarro 8 - D.K.B 1
- Lorategi Potroak 1 - Perrahotsa 0
- Bodisca 1 - Autos Muru 5
- Leya 3 - Potrosorri 4
- Artzankos Udalaitez 1 - Equis 2
- Excavaciones Lete 1 - Irati STS 2
- Txoko Taberna 2 - Orlando Piratas 7
- Jotakabau 2 - Baneuko 2
- Frantziskarren 6 - Foto Imagen 4
- Koka Juniors 2 - Ke Oxtias 6

D Taldea

- Sokoakoak 0 - Diego Antonio Iriztu 6
- Elisabeth 2 - Borrock'n Roll 4
- Los Heredia 2 - Butangak 8
- BZ sistemas 2 - Altza Porru 0
- Teodolito 0 - Motz 9
- Ojo Avisore 7 - Kakajauri 3
- Anorthosis 2 - Mikelos 8
- A.C Surcos 13 - Resakas 0
- Lautherbrunnen 5 - Sukar 1
- Argi Ibili 10 - Tronkoteak 2



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 29

Zaldibar

- 8.50 La banda - Pub People
- 10.00 Petroleros - Berango Sukaldeak
- 11.00 Bukanak - Strauss
- 12.00 Teodolito - Kakajauri
- 13.00 Txoko Taberna - Baneuko
- 14.00 Jotakabau - Foto Imagen
- 15.00 Diego Antonia Iriztu - Tronkoteak
- 16.00 Artzankos Udalaiz - Irati STS
- 17.00 Danok Lagun - Totem
- 18.00 Los Dalton - Zotz
- 19.00 Bodisca - Potrosorri
- 20.00 Leya - Equis

Igandea 30

Zaldibar

- 8.50 Nabarros - Perrahotsa
- 10.00 BZ sistemas - Motz
- 11.00 Adelaida Haizea - Zuloak
- 12.00 Sokoakoak - Borrock'n Roll
- 13.00 Eztanda egin arte - Arrasate Kiroiak
- 14.00 Elisabeth - Butangak
- 15.00 Krisibalda - Butangak
- 16.00 Arrasate Zoo - Txeyenex
- 17.00 Los Heredia - Altxa Porru
- 18.00 Orkatz - Monterrey Taberna
- 19.00 Anorthosis Agudah - Resakas

Astelehena 31

Zaldibar

- 8.50 Anbotoste - Ezkiñako hontzak
- 10.00 Astoen Bila - Bayer Lenitz
- 11.00 Excavaciones Lete - Orlando Piratas
- 12.00 Fosforos - Cervecera Lenitz
- 13.00 Lorategi Potroak - Autos Muru
- 14.00 Insert Coin - Fraguél Gol
- 15.00 DKB - Ke Oxtias
- 16.00 Ganbelas - Hirei
- 17.00 Ojo Avisore - Mikelos
- 18.00 Salenko y Konpañia - Iluna Taberna
- 19.00 Lauyherbrunnen - Argi Ibil
- 20.00 No Coment - Uglys Txinat

Asteartea 1

Zaldibar

- 8.50 Nuevo Taberna - Trikiti
- 10.00 Tovarixtx - Suministros Ugarte
- 11.00 Pepelus - Los Dimy
- 12.00 AC Surcos - Sukar
- 13.00 Frantziskaner - Koka Juniors

Ezin bururik altxatu

Lehen fasea bukatzeko 15 jardunaldi falta dira, baina talde batzuk atzean geratzen ari zaizkigu, dagoeneko. A taldean, Bayer Leintzek eta Iluna tabernak lan dexente egin beharko dute euren helburua 2. fasera sailtzea baldin bada. Astoen Villa eta Iners Coin, txapelketan talde berriak direla kontutan izanda, normaltzat har daiteke dauden tokian egotea. B taldean, La Banda dugu azken tokian, talde hori sekula ez da hain txarto sailkatua egon, beraz, sailkapeneko zuloan ikustea nahiko harrigarria da. Multzo horretan dauden gainontzeko taldeek, ez dute 2. fasera sailkatzeko aukera gehiegi, aurreko txapelketetan ere larri eta estu ibilitakoak dira eta. C taldean, Txoko Tabernak ezustean

harrapatu gaitu. Iaz 2. fasera sailkatu zen taldea, azken tokian dago aurten, jokatu dituen 3 neurketetatik hirurak galdu ditu eta. Golei dago-kienez, 3 sartu ditu eta 23 jaso. Jotakabau ere ez dago ondo sailkatua baina urtero txarto hasten den taldea da, nahiz eta azken orduan erreakzionatu. Iaz ere berdintsu ibili zen, hasieran txarto baina egiaren orduan sailkatzea lortu zuen. Aurten zer egingo duen? Batek daki. Azken multzoan Teodolito isten du sailkapena. Talde berria izanda, ez da arraroa hor ikustea. Aurretik, baina puntu kopuru berberaz, Resakas eta Elisabeth taldeak ditu. Hauek ere, horrela jarraitu ezker, otsailerako bukatuta izango dute txapelketa.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Eukeni Olabarrieta

Laneko absentismoaz

Laneko absentismoari buruzko ikerketarik onenaren saria eman zioten Lagun-Aroko mediku honi ekainean. Azterketa sakona ari da egiten eta absentismoaz orokorrean eta emakumearen absentismoaz jakiteko jo dugu beregana. Egiten ari den ikerketan datu aipagarri asko ateratu da. Emakume nahiz gizonezko, laneko satisfakzioaren garrantzia azpimarratu behar, ondorio moduan.

— Emakumearen lanaldi bikoitza zenbaiteraino dago lotuta absentismoarekin?

— Ikerketa horretara bideratu beharko litzateke. Ikerketaren arabera, zerbitzu arloko eta irakaskuntzako emakumeak dira absentismo maila txikiena dutenak, eta eskulan zuzenean ari diren emakumeek eta autonomia, kreatibitate eta edukin gutxiako lanpostuetakoetan intzidentziarik altuena.

Emakumeek lanera huts gehiago egitearen arrazoiak etxean umeak izatea eta horiek hazi behar izatea bada, ikastoletako edo zerbitzu sektoreko emakumeek, kualifikatuago eta hobeto ordaindutako lana dutenek, zergatik dute absentismo maila txikiagoa? Hori ote da azalpen bakarra, edo dena nahasten da, eta bere lanean gustorako dagoen emakumeak umea gaitoxotu arren irtenbidea topatu eta lanean jarraitzen du, baina lanean satisfazio gutxi duenak, lan monotono eta asper-


garria duenak, berak hartzen du umeen ardura ere.

- Kulturak ere eragina du horretan?

- Argi dago zenbat eta maila kultural handiagoa, etxeko lanak gehiago banatzen direla gizon eta emakumeen artean, eta hori faktore garrantzitsua da. Maila bajuagoan lan mota batzuk gizonezkoak ez ditu ia sekula ere egiten, baina harrigarria da goragoko mailan gizonezkoek gehiago egitea. Eta ikerketa batzuetan agerienez, lehen etxekoandareenak bakarrik ziren lan asko (etxea jasotzea, garbitasun lana...) gaur egun injineru, ekonomilari, eta medikuek ere egiten dituztela, eta hori errealitatea da. Ekonomikoki hain ondo ez dauden klaseetan hori ez da hain maiz gertatzen, gizonezkoak askoz ere gehiago uzten du etxeko lana emakumearen esku eta kultura eta informazio kontua dela iruditzen zait.

—Absentismo biologikoa ere hitz egiten da. Badago esaterik emakumeak berez gizonezkoak baino gaitoxotun gehiago izaten duenik?

— Hori ere aztertu beharreko gaia izango litzateke, eta arrazoi batengatik: Gizonezkoen artean absentismo mailarik altuena sortzen duten gaitoxotasunak, menopausia baino lehen maiztasun txikiagoak izaten ditu emakumeak. Emakumeetan salbuespena dira prozesu kardiobaskularrak menopausia aurretik, arnasketako arazo kronikoak,



aparatu lokomotorari dagoenak gizonezkoenaren antzeko maiztasuna izaten da. Baina kuriozosa da, absentismoko arrazoi nagusien artean buruko gaitoxotasunen talde zabalean sartzen direnak daude: depresioak, asteniak eta antzekoak. Atentzioa deitzen duten datuak daude: 90ean elektratesna eta ausiliarretan gehien irauten zuten bajak (haurdunaldikoak alboratu) traumatismoak, aparato lokomotor eta hirugarren buruko trastornoak egongo lirateke, emakumeen artean eta orokorrean, adin mailaren arabera aldatzen den arren. Eta kontutan izateko datua da, lan egiten duten emakumeena izanik. Depresioa berez sarriago izaten da emakumeetan, baina etxekoandreetan.

— Dena dela, absentismoa ikertu izan denean ikuspegi ekonomikotik baino ez da egin izan...

— Bai, eta hemen ikerketa sozialerako arlo zabala dago, absentismoa enpresei

diru asko kostatzen zaiela kontutan izanda, batez ere. Ez da bajak ordaintzea zuzenean kostatzen dena bakarrik. Gaur egun enpresek asko begiratzen diete kostuei: produktua zelan merketu edo lau pezeta aurreratzeko, diruak ihes egiteko modu hori ahaztu egiten zaie. Negozioa egitea ez da irabazten jakitea bakarrik, ez galtzen ere jakin behar da.

Lan honekin gai horretan sartu nahi dugu, enpresari kontzientzia iratzartu, beste pentsakera hori engainagarria da eta: adin handiko langilegoa izan dezakezu, absentismo biologiko handiagokoa, edo tasa hori baino txikiagoa izan arren, absentismoa talde gazte batengandik espero daitekeena baino altuagoa izatea. Eta hori aztertu egin behar da. Neurri zigortzaileak jartzeak ez du ezertarako balio; baina arrazoiak aztertu eta insatisfakzioa dagoela ikusiz gero, badakigu zaila dena neurtzen, baina era honetako gaietan sartzeko beldurra gehiago dela iruditzen zait. Aurritzirik gabe azterketak egitea komeni da. Epe motzera ez da errentagarri izango, baina luzera bai.

● **“Lanean gustora dagoen langileak askoz ere baja gutxiago izaten du”**

Emakumeen lana: Etxean eta kanpoan

Arantazu Loidi

Etxetik kanpo ere lan egiten duen emakumearen arazo nagusia "ere" hori bera dela esan ohi da: kanpoko lanaz gain, etxekoa ere bere ardura izaten duela. Lanaldi edo jornada bikoitza esaten zaio. Arrasaten emakumeen %29,7ak egiten du etxetik kanpo lan, 91ko datu ofizialen arabera. Beste askok eta askok izkutuko ekonomian. Guztien arazoa izango den honi buruz berba egin dugu hainbat emakumerekin, eta gogoetarako laburpen txiki bat baino ez da hau. Etxeko lanak inorenak ez eta denonak dira, eta arazo hau, emakume bakoitzaren borroka, baina gizarte arazoa ere bai, dagoeneko.

Emakumea lan munduan sartzek aldaketa handiak ekarri ditu gure gizartera. Emakumearengan, etxeko giroan eta bere lanpostuan duen eraginari begiratu besterik ez dago, besteak bestea. Urteen joanean gauza batzuk apurka apurka aldatuz doazen arren, ezin uka kultura baten seme-alaba garena eta oraindik ere etxeko lanen ardura guztia emakumearen gain izaten da, gizonenak edo seme-alabek "lagundu" baino ez dute egiten eta. Hortxe dago kakoa: erantzukizuna eta laguntasuna ez dira gauza bera.

"Ez zait denbora iristen", "24 ordu gutxi ditut denetara

ARRASATE: EMAKUMEA ETA LANA	
EMAKUMEA GUZTIRA	12.747
OKUPATUAK	2.874
1. ENPLEGU BILA	506
LAN EGIN. LANGABEZIAN	408
AKTIBOAK	3.788
EZ AKTIBOAK	8.959
IHARDUERA-TASA	29,7
INEMeko DATUAK	
Lan eskatzaileak	1.249
Horietatik emakumezkoak	803

EUSTAT 91ko datuak

ARRASATEKO KOOPERATIBETAKO DATUAK 93an			
ENPRESA	EMAKUMEA	GIZONEZKOAK	
MCC	16	43	
EUSKADIKO KUTXA*	418	934	
LKS	15	45	
AUDILAN	-	3	
LAGUN-ARO	53	37	
IKERLAN	16	70	
AUZO-LAGUN	241	5	
F A G O R	GARAGARTZA	210	550
	SAN ANDRES	261	943
	INDUSTRIAL	29	209
	MINIDOMESTICOS	33	88
	CLIMA	82	142
	SISTEMAS	21	101
	AUTOMATION	76	142
	ELEKTRONIKA	315	186
	SAN VIATOR	32	16
	SFX	68	5
UMEZAINNTZA	14	0	
ALMEN	50	16	

* Euskadiko Kutxako datuak ez dagozkie Arrasateko langileei, bulego guztiei baizik. Ondorioz, batuketan ez dira sartzen.

iristeko", "ez dut neuretzako astirik" ... eta antzeko asko entzungo duzu, eta jasan eta jasan egon eta gero entzungo duzu gainera. "Kontua ez da egoerari buelta osoa ematea, tantaka-tantaka aldaketa txikiak egitea, norbera biolentatu barik eta etxeko giroa eta harremana kaltetu barik, ahal den neurrian". Lan egitea emakume askoren erabakia da gaur egun, eta ebidentzia horren aurrean irtenbideak bilatzea da komeni dena.

LAN BANAKETA ETA PAPER BANAKETA

Etxean egin beharreko guztia denon artean banatzea izango litzateke, emakume guztien ustez, ideala. Horretan seme-alaben adina, bakoitzaren denbora eta aktibitateak eta abar izan beharko liriteke kontutan, baina lan banaketa paperen arabera ez egitea ere garrantzitsu ikusten dute: "ohea egitea ez dezatela amarekin erlazionatu, pertsona bezala izan dezakedan zaletasun batekin erlazionatzeak axola ez didan arren". Senar-emazteen arteko lan banaketa hori txiki-txikitik jasoko du umeak, horregatik maskulino-femenino bereizketa aukera pertsonalez egindako banaketak gaintzea inportantea izango da.

"NESKA"REN IRTENBIDEA

Lan banaketak azkenean funtzionatzen ez duenez lan guztia emakumeari tokatzen zaionez, ezertarako denbora aterako badu kanpoko laguntza bila irteten du: "Ez da

irtenbide ideala, baina neurtezako denbora hartuko badut, zerbait egin beharra daukat” esaten du askok. Gainera, etxean ematen duen denbora ere umeekin egoteko erabiltzea nahiago izango du askok, adibidez plantxan aritzea baino. Arazo bat konpontzeko beste bat sortzea dela ere iruditzen zaio askori, baina azkenean, beste ardura bat da hori.

ARRASATEN AZPIEGITURARIK EZ

Eta puntu honetara helduta, emakume taldeek behin eta berriz salatu izan dutenera iristen gara: Aukera sozialik ezean, irtenbide partikularrak bilatu beharrean aurkitzen dela familia bakoitza, bere arazoa konpontzeko. “Arrasaten ez dago aukerazterik, ez dago umezaintza zerbitzu zabalik, eta emakumeentzat geratzen diren beste lan guzti horiei (adinekoak zaintzeko, adibidez) erantzuteko eskaintzarik. Hori bale-

go, aukeratzea besterik ez litzateke izango, baina ez da gaurko egoera”. Izan ere, ume txikiak dituen familia askok utzi behar izaten ditu familiartekoren batekin, beste aukerarik ezean, eta ez hala aukeratu duelako bakoitza: “gaur egun aitajau-amandre asko ikusten da kalean lobak zaintzen, gurasoak lanean diren orduetan”.

Eta arazoa umeak ez direnean, adinekoen zainketaren arazoa planteatzen da. Bizitzako etapa bakoitzak bere karga dakar familiarentzat.

ETA LANPOSTUAN ZER?

Denak daude ados ama izanda behintzat promozionatzeko mugak badaudela, kasuak kasu bestela ere gertatu arren. Lanera huts egite-

ko unean era sutilean eragiten duten ardura asko daudela ere errealitatea da, umeak medikuarengana eramateko edo etxeko arazoengatik, emakumeek galtzen dute gehienetan lana. Baina errendimendua ez da etxeko lanaren zama antzematen, hori ahobatez esango dute denek, “gizonezkoiei gehiago antzematen zaiela” ere bai..



Etxeko lanetan banaketa eskatzen dute emakumeek.



A
rrasaten ez dago
behar
litzatekeen
azpiegiturarik,
eta irtenbide
pertsonalak
bilatu behar
izaten dira.

Amantala deabrua denean

Belaunaldi batetik bestera hoberako aldaketak gertatzea espero daitekeen arren, neska-mutilen artean ez ei da horrelako jarrera aldaketa handirik nabari. Bakoitza bere aktibitateetan ibiliko da, eta amak ere astirik ez duela jakin arren, gazteek ez ei dute ezer egiten ikasten. Amak edo horretara etxera etortzen den emakumeak egiten du egin beharrekoa.

Ama askok aitortzen duenez, horretan badago heziketa arazo bat: “garai bateko amek etxeko lanak egiten erakusteko askoz ere pazientzia handiagoa izan zuten”, neskei bakarrik erakutsi arren. “Umearen zentzuna, etxean entzuna” esan ohi da, eta nekez hartuko du gazte batek lanak konpartitzeko ohitura, ordua iristen zaionean eta konbentzimendu hutsez.

Natxo eta Jabi Larrañaga: “Atxabalpera etortzen den jendea orokorrean nahiko lohia da”

Futbolaren gainean berba egiten dugunean, jokalaria eta entrenatzaileak datozkigu gogorra, baina guzti hauen atzean beste jende bat ere badago. Izkutuan daude, ia ez da eurretaz hitz egiten, baina egiten duten lana egunero eskertzen dute jokariak eta domekero ikus dezakegu Atxabalpera inguratzen garenok. Natxo eta Jabi Larrañaga dira Atxabalpe txukun edukitzeaz arduratzen direnak.



Natxok eta Jabik ondo ezagutzen dituzte Atxabalpeko kontu guztiak.

- Zeri da zuren lana Atxabalpen?

- Natxo: Areazko eta bedarrezko zelaiaren zainketaz arduratzen naiz.

- Jabi: Nire lana jokalarien erropak eta aldagelak garbitzea da eta jokalariei kasu egitea.

- Egin behar duzuen lanetik, zer da gutxien gustatzen zaizuen?

- Txarrena ordu asko sartu behar direla, denbora asko egon behar izaten dugu hemen eta askotan aspertu egiten gara.

- Nola sartu zineten lan honetan?

-N: Kadete taldea entrenatzen nuen eta hemen Karmelo zegoen lan hori egiten; Karmelo kiroldegira joan zenez eta konfidantzazko lagun bat nahi zuten, niri eskaini zidaten lana eta onartu egin nuen.

- J: Anaiak esan zidan Mondra norbaiten bila zebilela eta ea nik lan hori nahi nuen; hasieran hilabetez bakkari geratu behar nuen, baina

gero gehiago geratzea proposatu zidaten eta hementxe jarraitzen dut.

- Jabi, zer da garbitzen duzuna?

-J: Jokalari guztien erropak hartzen ditut eta garbitu. Bai entrenamendutan erabiltzen dituztenak eta baita partidu ostekoak ere. Erropa denak garbitzen zaizkie, gal-tzetinak, kantzontziloak, frakak, alkandorak, uretakoak, den dena. Hemen garbigailuak eta lehorgailuak ditugu, egunero erropak gertu izateko.

- Natxo, zelaiaren ardura duzu; zer behar du zelaia ondo egoteko?

- Zelaia zaintzeko orduan urtaroeke zeresan haundia daukate, izan ere udan edo neguan zelaia zainketa desberdina eskatzen du. Udaberri eta udan lan gehiago izaten

dut, zelaia urreztatu egin behar da, abonatu, landatu, makinak pasatu behar dira lurra aireatzeko eta gero kontutan izan behar da zelaia gaisotasuna dela eta. Neguan lan gutxiago izaten dut, euria egiten duenean ezin da zelaia zapaldu eta.

-Zelaiak kanpotik ondo dagoela dirudi, baina barrutik?

- Kanpotik ondo dagoela dirudi, polita ikusten da baina barrutik ez dago hain ondo, oso irregular dago. Arazoa hauxe da; lurrak ez duela drenatzen, lurrak zati batzutan asko xurgatzen du eta beste batzutan ezer ere ez. Arazoa hortik dator.

- Lan asko ematen dute jokariak?

- Egia esateko bai, eta konfidantza apur bat eman ezker, gehiago. Gauzak

garbi utzi behar zazkie, bestela nahi dutena egiten dute.

- Zeintzuk ematen dute lan gehien?

- Talde haundikoe, zailantza barik. Txikienek ia ez dute lanik ematen. 3. mailako taldekoak beti eskatzen ibiltzen dira; gauza txikiak, baina beti eskatzen, euren amak garelako uste dute.

- Partidu ostean botei takoak zuek aldatzen dizkizue?

- Ez, jokalaria bakoitza arduratzen da horretaz. Botak etxera eramaten dituzte, hemen entrenamendukoak bakarrik egoten dira.

- Ze harreman daukazue direktiboekin?

- Harreman ona izaten saiatzen gara, ez dago beste erremediorik. Hemen jende asko dabil, jokalaria, direktiboak, beraz, beti diskutitzen egotea nahi ez baduzu harreman ona edukitzea nahi eta nahiezkoa da guztiontzat.

- Atxabalpera etortzen den jendea garbia da?

- Ez, guztiok oso lohia garelako esan beharra dago. Jokalarietatik hasi, direktiboak, beharbada gu ere bai, domekero etortzen den jendea... Dena lurrera botatzeko ohitura txarra daukagu, jarraitzaileek pipak, errifak, tabakoa, latak... dena lurrean uzten du Jendeak garbitasunaren kontzientzia izango balu, askoz ere garbiagoa egongo litzateke Atxabalpe. Gu biok ahalegintzen gara ahal duguna jasotzen eta txukun izaten, baina metro karratu asko daukagu garbitzeko eta jendeak jarrera aldatzen ez badu, gure lan guztia alperrikakoa da.

.....

“Bakoitzak gure orduak zehaztuta daukagu baina lana badago bukatu arte egon behar izaten dugu”

PENALTIAK

● **Urbina Maltzaga sas-kibalo**i taldeak derbia jokatuko du Patronato Bilbao taldearen kontra. Partidua Igandean goizeko 12etan jokatuko da eta Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du. Urbina Maltzagak 4 neurketa jokatu ditu, 2 galdu egin ditu eta bi irabazi. Une honetan, sailkapeneko 10. tokian dago 6 punturekin. Aurrean izango duen taldea puntu kopuru berberaz dago.

● **Mondra taldeko emakumeek lagun arteko neurketa jokatu**du larunbatean Baionako talde baten kontra. Neurketa larunbatean jokatuko da arratsaldeko 4etan Atxabalpeko anexoan.

Nagore eta Errasti aurrez-aurre Eskoriatzan

Lehen mailako pilota partidua jokatuko da Eskoriatzan azaroaren 6an, goizeko 11,30etan. Juan Ramon Arana Almeneko marianista zenari urtero egiten dioten omenaldiaren barruan, pilotaren alde egin dute apostu antolatzaileek. Asegarce enpresarekin harremanetan jarri ondoren, 4 t'erdiko txapelketako partidua Eskoriatzara

ekartzea lortu dute. Partidua nagusia Errastik eta Nagorek jokatuko dute. Enpresas Unidaseko pilotariek elkarren kontra jokatuko dute Eskoriatzako frontoian. Jokin Errasti azkoitiarra da eta 28 urte ditu; duela bi urte 4 t'erdiko txapelketan txapel-dun orde geratu zen. Jorge Nagore 23 urteko pilotaria, irurzundarra da. Kubako txa-

pelketan afizionatu mailan lehen postua lortu zuen. Profesionaletan Lizarrako eta Donostiako txapelketak irabazi ditu. Izen haundiko bi pilotari hauek aurrez aurre izango ditugu urriaren 6an. Txapelketako partidua garrantzitsu horren aurretik, eskuz binaka, Asergaceko 4 pilotari jo eta sua ikusteko aukera izango dugu. Alustiza eta Berna bikoteak Salaberria eta Santi bikotearen kontra neurtuko ditu indarrak. Horrela bada, etxetik gertu pilota partidu paregabeak ikusteko aukera egongo da. Bestalde, esan beharra dago, azaroaren 3an arratsaldeko 4.30etan material aukeraketa egingo dela Eskoriatzako frontoian, bertan pilotariez gain, Fernando Tapia material selekzionatzailea ere egongo da.



Pilota partidu interesgarriak izango ditugu Eskoriatzan.

EMAITZAK

<p>Futbola</p> <p>3. maila: Mondra 4 Baskonia 1 Emakumeak: Intxaurdi 0 Mondra 4 Ohorezko Liga: Beti Onak 1 - Mondra 1 1. Kadeteak: Arrasate 3 - Anaitasuna 2 2. Kadeteak: Arrasate 4 - Eibartarrak 1 Infantilak: Urki 0 - Arrasate 1 Hurrengoak: 3. Maila: Zamudio - Mondra. Larunbata 4etan. Emakumeak: Mondra - Ostadar. Asteartea, 15.45. 2. Erregionala: Segura - Mondra. Ostirala. Mutriku - Mondra. Asteartea. Ohorezko maila: Mondra - Añorga. Igandea 15.45. Kadeteak: Arrasate - Ilinxta. Asteartea, 9.45etan. Infantilak: Arrasate -</p>	<p>Eibartarrak. Igandea, 12etan.</p> <p>Saskibaloia</p> <p>EBA Liga: Burgos 82 Urbina Maltzaga 74 Seniorrak S 23: CAF 65 Urbina-Maltzaga 49 Juniorkak A: Urbina-Maltzaga 86 CAF 38 Juniorkak B: Urmek 64 Urbina-Maltzaga 69 Seniorrak Emak: Urbina-Maltzaga 55 ORIO 31 Kadete A: Aldapeta 39 Urbina-Maltzaga 57 Kadete B: Atsedena Kadete A Emak: Don Bosco 41 Urbina-Maltzaga 21 Kadete B Emak: Almen B 23 Urbina-Maltzaga 30 Hurrengoak: EBA Liga: Urbina-Maltzaga - Patronato Bilbao. Igandea 12etan Iturripe.</p>	<p>Senior S 23: Urbina -Maltzaga - Politekniko. Larunbata 6etan Musakola Kadete A: Urbina -Maltzaga - Iraurgi. Larunbata 12etan Musakola. Kadete B: Urbina-Maltzaga - Urmek. Larunbata 10etan Musakola.</p> <p>Eskubaloia</p> <p>1. maila: Arrasate 13 Zarautz 23 1. Territoriala: Arrasate 16 Pasaitarrak 24 Hurrengoak: 1. maila: Aranda - Arrasate. Larunbata 7etan Iturripen. 1. territoriala: Aloña Mendi - Arrasate. Igandea 12etan Oñati.</p> <p>Rugby-a</p> <p>Lehen maila: Unibertsitariak 13 Arrasate 6</p>	<p>Hurrengoak: Lehen maila: Arrasate - Atle bera-bera. Larunbata 4,15etan Garagartzan. Jubenilak: Arrasate - Atle bera-bera. Larunbata 3etan Garagartza.</p> <p>Futbito</p> <p>1. maila: Arrasate 4 Tizona 2 Arabako territoriala: Txanagorritxo 6 Arrasate 4 Hurrengoak: 1. Maila: Autonomia - Arrasate. Larunbata, Barakaldon 5.30etan. Arabako territoriala: Arrasate - Txateahy. Larunbata Setan Musakolan.</p> <p>Pilota</p> <p>Kadeteak: Arrasate 14 Eskoriatza 22 Jubenilak eskuz binaka:</p>	<p>Elgeta 16 Arrasate 18 Jubenilak eskuz binaka: Azpeitia 22 Arrasate 17 Juniorkak: Arrasate 19 Azpeitia 22 Nagusiak eskuz binaka: Beasain 8 Arrasate 18 Nagusiak eskuz binaka: Antzuola 22 Arrasate 20 Hurrengoak: Jubenilak eskuz binaka: Arrasate - Añorga. Larunbata 11etan Iturripe. Jubenilak eskuz binaka: Arrasate - Zumarraga. Larunbata 11etan Iturripen Nagusiak eskuz binaka: Arrasate - Oñati. Larunbata 11etan Iturripen. Kadeteak: Lazkoa - Arrasate Juniorkak: Eskoriatza - Arrasate</p>
--	---	--	---	--

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Bitaminak (I)

Zer dakizu bitaminei buruz?

Jende gehienak badaki beharrezkoak direla guretzat, baina zer eragin daukate gure gorputzaren? Zenbat mota daude? Zein elikagaitan aurkitzen dira? Hurrengo asteetan galdera hauei erantzuna ematen saiatuko gara.

Gure gorputzak apenas sor ditzakeen molekula batzuk dira bitaminak, horregatik, beharrezko egiten zaigu janariaren bitartez hauek lortzea. Euren funtzio orokorra gorputzean gertatzen diren erreakzio kimikoak erregulatzea da.

Bi talde nagusitan banatzen dira: liposolugarriak eta hidrosolugarriak. Liposolugarriak (A, K, D eta E bitaminak), gure dietako koipean disolbaturik agertzen dira, hau da, olioan eta animalien koipean. Hidrosolugarriak, bestalde, (B taldeko eta C bitaminak) uretan disolbagarriak dira eta, horregatik, elikagaiak egosten ditugunean uretan galtzen dira.

Ondoren, bitamina bakoitzari buruz gehiago sakonduko dugu.



Xxxx

LIPOSOLUGARRIAK

- A Bitamina (Retinol):

Funtzioak:

1.- Ikusmenerako beharrezkoa da, horregatik, A bitaminaren falta edo gabezia daukagunean ez dugu ongi ikusten argi gutxi dagoenean.

2.- Azalaren berriztapenean laguntzen du.

3.- Hezurren eta kartilagoen luzapenarekin erlazionatuta dago (haurrentzat gomendagarria da).

4.- Gaixotasunen aurkako gorputzaren defentsak indartzen ditu.

Zein elikagaitan aurkitzen da?

- 1.- Gibelean oso ugaria da.
- 2.- Giltzurrunetan.
- 3.- Elikagai koipetsuetan (urdaian, gurinean, esnean (gaingabetuan ez), gaztan...

Elikagaietan badago konposatu bat gure gorputzean A

bitamina bihurtzen dena: B-karotenoa. Hori, kolore berde ilun eta laranjako barazkietan (espinaketa, perrejilean, azenarioan, tomatean, pipar gorrian...) eta salmoi edo izokinean aurkitu ahal izango dugu.

Egia da A bitamina oso baliagarria dena, baina gehiegi hartzea ere ez da ona.

MAIDER NUIN

ETA JAVIER SANCHEZ

(Elikagaien Zientzia eta Teknologiko ikasleak)



Kalitate gorena leihuetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.**

• **NEKAZARITZA:** haziak, ongariak, produktu agrokimikoak, e.a...

• **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria, e.a...

• **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a...

• **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, txori eta arraintzakokoak)

Musakolako Industrialdea, z/g ☎: 79 17 79 / 79 86 70
ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Marta Varela

"Ontzi-denda" dendakoa



- **Daukazuen gauzarik garestiena?** Txinako pitxar bat, 30.000 pta balio du.
- **Zer da gehien saltzen duzuen?** Keramika eta lorak.
- **Gutxien?** Menajea eta sukalderako gauzak.
- **Ile kolore hori, naturala da?** Bai!
- **Bozkatu zenuen joan zen igandean?** Ez, ez nintzen bozkatzera joan.
- **Ez duzu konfiantzarik politikan, edo?** Bat ere ez.
- **Baduzu idolorik?** Ez.
- **Diruak zorientasunik ematen du?** Ez, baina laguntzen du.
- **Etxekolanetatik, zein da egitea gutxien gustatzen zaizuna?** Platerak eta ontziak garbitzea.
- **Aitak laguntzen du etxekolanetan?** Ez, ez du ezer egiten.
- **Non gustatuko litzaizuke etxe bat edukitzea?** Irla batean, Menorcan adibidez.
- **Kirolak egiten duzu?** Orain ez, lehen gimnasia egiten nuen eta mendira joaten nintzen.
- **Telebistako programa bat?** "Lingo" eta "Cifras y letras".
- **Sukaldari ona zara?** Orain ez, baina lehen oso postre onak egiten nituen.
- **Gonak ala frakak?** Frakak negurako; gonak udarako.
- **Erosten duzu erroparik merkadiloan?** Ez.
- **Erosi duzun azken erropa?** Praka batzuk eta euritako txamarra bat.
- **Miloi bat pezeta tokatuko balitzaizu, zertan gastatuko zenuke?** Greziara egingo nuke bidaia.
- **Negar asko egiten duzu?** Ez.
- **Karta joku bat?** Eskoba.
- **Zer iruditzen zaizu "0'7aren aldeko kanpaina"?** Oso ondo dago.
- **Laguntzen duzu?** Ez, baina gustatuko litzaidake.
- **Platerak txuriak edo marradunak?** Txuriak.

LABURRAK

Haur Kantatarako sarrerak salgai

Azaroaren 20an, Gipuzkoako Abesbatza Federazioak omenaldia egingo dio On Joxemiel Barandiarani. Omenaldi honetan, Gipuzkoako 2.500 haurrek Escudero maixuak sortu duen "Mitoen Sinfonia" delako haur kantata abestuko dute. Horien artean, 80 bat, Arrasatekoak izango dira, Goikobalu Txiki eta San Viatorreko Ortzadar abesbatzetakoak hain zuzen. Jaialdia Anoetako belodromoan izango da eta sarreren prezioa 600 pta ingurukoa da. Sarrerak erosi ahal izateko, Goikobalu Txiki edo Ortzadar abesbatzetako arduradunekin jarri harremanetan.

AEDko lehiaketen liburua

Joan den urteko AEDren "Arrasate 93 Literatur Lehiaketa" saritutako lanak, irakurgai eta ikusgai daude AEDk argitaratu berri duen liburuan. Liburu horretan, argazkia, diapositiba, bertso-paperak, poesia, ipuina eta komikia sailetan irabazle izendatutako lanak irakurri ahal izango dituzue. Liburua Hire eta Gorabehera liburudendetan aurkituko duzu salgai, 1.000 pztatan.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK elkarteak

Gerente lanpostua bete behar du

Ezinbesteko baldintza: **euskara ondo menperatzea.**

Baloratuko direnak:

1. **Administrazio edota ekonomia mailan titulazioa eta esperientzia.**
2. **Komunikabide munduaren ezagupena.**
3. **Lantaldeak antolatzeko eta zuzentzeko gaitasuna.**
4. **Harremanetarako erraztasuna.**

Kurrikulumak ARKOko administrazio bulegoan jasoko dira. (Azoka plaza, 1 ARRASATE) Aurkezteko epea azaroaren 11an bukatuko da.

“Altar de Vanidades”

Maketaren arrakastaren zai

Jose Mari Agirrebeitia, Miguel Maese, Jon Ramila eta Iban San Jose dira “Altar de Vanidades” musika taldeko partaideak eta momentuotan Arrasateko SHOT estudioan ari dira “Euskadi Gaztea”ko lehiaketarako maketa bat grabatzen. “Heavyak” omen dira, baina musika garbia eta melodikoa egiten dute.



— Noiztik instrumentuak astintzen?

— **J. M.:** Duela 3 urte hasi ginen Iban eta biok kitarra jotzen lokal zahar batean eta gero bajista bat hartu genuen: Jon. Bateriarekin joan den urtean hasi ginen, beraz, guztira, 3 urte daramatzagu.

— Nor da taldeko “kompositorea” eta zertaz hitzegin dute zuen abestiek?

— **M.:** Taldean sartu nintzenetik nik egiten ditut abestien letrak. Era guztietako gaiak jorratzen ditut: gai fantastikoak, eguneroko bizitzako kasuak... denetarik... hori bai! Politika ez dugu ikutzen. Adibidez, Ruandako egoerak asko motibatu ninduen eta oso sentibera naizenez, abesti bat idatzi nuen gai horre-

kin. Egia esan, bakoitzak bere paranoia izaten du eta nire letrak edonork ezin ditudala ulertu uste dut: oso subjektiboak dira. Ez zait ezer zuzena esatea gustatzen, nahiago dut jendeari pentsaraztea.

— Eman duzue kontzerturik nonbait?

— **J.:** Ba, egia esan, ez, baina ez da izan nahi izan ez dugulako horretarako ahaleginik egin ez dugulako baizik. Badakigu aurrez kontzerturik egin ez duen talde batek maketa bat ateratzea ez dela oso normala, baina guk ilusio handia jarri dugu maketa horretan eta ondo ateratzen bada, kontzertuak ematen has gitezke.

— Zuen lokala ez da udallexarena. Ez duzue beste taldeekin nahastu nahi, ala?

— **I.:** Alokaturako lokal batean entsaiatzen dugu, hau da, ordaindu egin behar izaten dugu. Nik lehen beste talde batekin jotzen nuen eta depositoan entsaiatzen

genuen. Esperimentiaz dakit zelako talde saturazio handia dagoen han. Gainera, talde bakoitzaren entsaio-orduak finkatuak daude eta guri gabez entsaiatzea gustatzen zaigu.

Bestalde, nahiago dugu beste taldeekin ez nahastea eta gure kasa ibiltzea.

— “Euskadi Gaztea”ko maketa lehiaketara aurkeztokotan dabilen Arrasateko talde bakarra zarete. Zerk animatu zintuzten horretara?

— **M.:** Onak garela jakiteak! (Barreak) Ez, serio hitzeginda, dirua behar dugulako eta gure izena ezagutzera ematea komeni zaigulako.

— **J.:** Eta noski, musikkak erabat engantxatzen gaituelako.

— Irabazteko esperantzarik bai?

— **J. M.:** Zaila da, inguruan oso talde onak daukela kontutan izan behar da, baina esperantza badugu.

— **I.:** Bestalde, lehiaketa horretan “entxufatu” asko dago. Epaimahaikoak “pertsonek” dira eta pertsonak lagunak izaten dituzte, badakizu... baina, zer esango dizut... onak gara!

LABURRAK

Ikasketa eta enplegu teknikei buruzko ikastaroa

94-95 ikasturterako ere, gazteei zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ditu Gipuzkoa osoan zehar Kuxta Fundazioak.

Ikastaro eskaintza honek, Aula Gaztea du izena eta ikasketak hobeto aprobetxatzeko eta enplegua bilatzeko errazagoa izan dadin tresnak eskuratzea du helburu. Ikasturte honetarako berrogeita sei ikastaro eta zortzi informazio-ihardunaldi antolatu dituzte eta ikastaroetako 2 Arrasaten izango dira.


Lehen ikastaroa Enplegu-Teknikeri buruzkoa izango da. Ikasketak amaitu edo amaitzean dituzten gazteei dago zuzendua eta azaroaren 5ean eta 12an burutuko da, hau da, bi larunbatetan. Klaseak Udal Euskaltegian izango dira eta goizeko 10etatik ordu bietara bitarteko iraupena izango du. Inskripzioaren prezioa, 1.500 ptakoa da.

Bigarren ikastaroa, Ikasketak Teknikena, 1995eko urtarrilaren 14tik otsailaren 11ra bitartean izango da larunbatero. Goizeko 10etatik ordu batera bitarteko klaseak izango dira eta 2.500 ptako prezioa izango du hori ere udal-euskaltegian izango da.

Ikastaro hauetan izena eman nahi izanez gero, Arrasateko Kuxtaren bulegoetara jo.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Rock-Taldeentzako alternatibak

Udaleko Gazteria Batzordeak, maketa edo LPa ateratu nahi zuten Arrasateko rock-talde guztiei dirulaguntza bat ematea erabaki zuen 1991ean. Gaur egun oso talde gutxi dira dirulaguntza hau aprobetxatzen dutenak, antza denez, dirulaguntza honetaz gain taldeek euren poltsikotik jarri behar izaten duten gainontzeko dirua ez omen dute erraz lortzen eta.

Duela 4 urte, 1990ean, Arrasaten sortu ziren rock-talde ugariak ikusirik, talde guzti horiekin diska bat grabatzea pentsatu zuen udalak, hau da, talde bakoitzak bere abesti bat grabatu ahal izango zuen diska horretan; azkenean, taldeen artean zegoen maila desberdina ikusirik, ezinezkoa izan zen diska hori grabatzea eta bertan bera geratu zen asmoa. Urte hartan bertan, entsaio-lokalak egokitzea erabaki zuen udalak.

ENTSAIATZEKO LOKALAK

Aski ezaguna izan da rock-taldeek entsaiatzeko lokal ezaren gaia. Horrenbeste ilusioz musika munduari ekiten zioten taldeek bazterturik ez geratzeko eta entsaiatzeko lekuri ez izateagatik afizio honi utz ez ziezaioten, 1990an lokal batzuk egokitzea erabaki zuen udalak. Lokal horiek, kiroldegitik gorako bidean daude, Epelen, lehen depositoa izandako etxean. 4 entsaio-gela daude eta momentuotan, 16 talde dira bertan entsaiatzen dute-



nak. Talde berriren batek bertan entsaiatu nahi izanez gero, eskakizuna egin behar du Gazte Bulegoan: eskakizun hori onartzekotan, hitzarmen bat sinatu eta 10.000 ptako fidantza ordaindu behar luke. Fidantza hori bueltatu egiten da, Epeleko lokalean urte bete baino gutxiago entsaiatzen egoten badira.

80.000 PZTAKO DIRULAGUNTZA

Gazteria Batzordeak ematen duen dirulaguntza eskatu eta eskuratu duten taldeak, Heriotza, DDP, Child Abuse, Ume Gaiztuak, Malaña, More Beer (orain Necrosis izenarekin ezagunak), SS-77

eta Iskanbila izan dira. Make-taren kostuaren %50a ordaintzera konprometitzen da udala, kostu hori 80.000 pztatik gorakoa ez bada, beti. Gainontzeko dirua, talde bakoitzak jarri behar izaten du bere poltsikotik.

Joan den urtean bost taldek eskuratu zuten dirulaguntza, baina aurten, batek bakarrik egin du eskakizuna, "Altar de Vanidades" (lehen Estirpe izenarekin ezagunak) taldeak hain zuzen. Talde honek, Musakolara bidean udal almagaren ondoan dagoen lokal batean entsaiatzen du eta Arrasateko SHOT estudioan grabatuko dute maketa, "Euskadi Gaztea IV. Maketa Lehiaketa"n parte

hartzeko. Duela urtebete hasi ziren seriozki jotzen eta geroztik 7 abesti egin dituzte. Heavy estiloko musika egiten dute baina eurak esaten duten moduan, abesti melodikoak dira. Udalak eman dien dirulaguntza 80.000 ptakoa izan da eta gainontzeko 85.000 ptak, euren poltsikotik jarri behar izan dute, hainbat partaidek lan egiten dute eta.

ARRASATEKO ROCK TALDEAK

- Arsenal
- Cirios
- Zakarrak
- Mortuorio
- Company
- Iskanbila
- AGB
- Ahiotz
- Bah!
- Edozein
- E. H. Tropicala
- Child Abuse
- Kumulo Nimbo (Malaña ohia)
- Eztanda
- (Izenik gabeko beste bi talde)

(Epeleko lokalean entsaiatzen dutenak)

"Aurten talde bakarrak egin du dirulaguntza eskaera"

Felipe Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86



ALMENeko talde bat, 1972-73 ikasturtean.

Adira denak arrasatearrak, betidanik bailara guztiko ikasleak batu izan ditu eta Almenek. Ezkerretik eta goitik hasita: **Julian Eriz, Jose Ramon Gurrutxaga, Jose Jabier Perez Usabiaga, Juan Kruz Diez, Jose Ignacio Tejado, Frantzisko Legazpia, Angel Bragado, Jabier Kortabarría, Faustino Lasagabaster, Bixente Lopez Azpili-**

ALMEN eskolako talde bat da aste honetan ekarri duguna, OHOk 5. mailan ari zirela ateratakoa. 1972-73 ikasturtea izan behar zuen. Ez

kueta, Jon Andoni Axpe. Juan Jose Isazelaia, Kontxi Balanzategi, Maite Arribas, Mari Karmen Abasolo, Ana Tejero, Mari Jose Iparragirre, Maria Dolores Eskibel, Begoña Urkia, Mertxe Jausoro eta Mari Nieves Martinez irakaslea. Dorleta Dominguez, Marian Amozarrain, Nekane Jausoro, Estiba-

liz Besa, Aintzane Garate, Asun Gordo, Belen Mongelos, Pili Castillo eta Elena Moraga. Jabier Armendariz, Miguel Angel Lopez Rosón, Jabier Martin, Julen Zuazabeitia, Luis Mari Urkizu, Klaudio Fuentes, Frantzisko Alonso Diaz de Mendibil, Carlos Castillo, Rafael Etxeandia.

UGARAN
jatetxea

egizabal



oinetakoak

poltsak

ferrerias, 9

☎: 79 66 01

arrasate

LORAMENDI-N

FORRO POLARRETAN
AUKERA ZABALA

KALERAKO, MENDIRAKO
ETA AISIALDIRAKO

MODELO GUZTIAK


ADIN GUZTIENTZAT

NEURRI GUZTIAK

• AIPUA •

Askatasuna giza-
arimaren aire
arnasgarria da
HUGO

• JEROGLIFIKOA •



Norekin joango zara futbolera?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10			11				
12		13			14		
15			16		17		
		18					19
20							

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Gorputz baten ageriko aldea. 2. Arrasateren harremankide italiarra. 10. Alfabetoko 4. letraren izena. 11. (Ald.) Mitologia grekoko zentauroa. 12. (Ald.) Oiloak lo egiteko haga multzoa. 14. Musika eskalako 6. nota. 15. Zerbait lortzeko bidea. 18. Londres zeharkatzen duen ibaia. 20. Ostots.

Bertikalak 1. Edalontzi. 2. Gela nagusia. 3. Idi, hitz elkartuetan. 4. Zein tokitan. 5. Izengabeko. 6. Oraindik ordaintzeko. 7. Asturiasko hiria. 8. Koloka. 213. Baratze. 16. Biolentzaren Aurkako Mugimendua. 17. Deitzearen eintza. 19. Bi, erromatar erara.

• HOROSKOPOA •

- Aries** Ez duzu alabantzen beharrik. Bestela ere nahiko harrotxoia zara.
- Taurus** Haize boladak eramango zaitu gehiago jaten ez baduzu.
- Gemini** Negar egitea oso ona da eta aurpegiko azala edertu egiten du.
- Cancer** Txoritxo batek maitemindua zaudela esan dit. Egia da?
- Leo** Oraingoan ere arrazoia zuk izan behar. Aspergarria zara.
- Virgo** Bizilagunek ez zaituzte begi onez ikusten, baina zuri zer, ezta?
- Libra** Euskal labelaren marka falta zaie zure lagunei. Hori da afariak egin beharra.
- Scorpio** Txispa apur bat falta zaizu: fosforo beharra duzu.
- Sagittarius** Saltsa dantzatzen ikasten baduzu, agian Kubako balet nazionalak kontratatuko zaitu.
- Capricorn** Gabardina erosi, udazkenean euri asko egingo du eta.
- Aquarius** Gibela ustela duzu eta bihotza negarrez. Burua berriz...
- Piscis** Lagunek pikutara bidaltzen zaituzte. Ulergaitza ala ulergarria?

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


**GINEKOLOGI
KONTSULTATEGIA**



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.


Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• IBAN GONZALEZEN GOMENDIOA •



“Etxean aspertuta bazaude, Gazte Txokoetara etortzera animatu nahi zaitut”, dio Ibanek, gazteei zuzenduta. Ekintza ugari egiten da: musika, kitarra ikastaroak, partxis lehiaketak, eskulanak... eta beste gauza pila bat. “Nik behintzat lagun berriak ere egin ditut etortzen hasi nintzenetik, eta nire lagunek eta nik neskak gonbidatu nahi genituzke bereziki”. Orain arte neska gutxi hurbildu da San Andres eta Musakolako auzo alkatetzetako Gazte Txokoetara: “Animatu eta etorri!”

• KOMIKIA •



Haritz Larrinaga

• PROGRAMAZIOA •



31 Astelehena

Ez da programaziorik egongo.

1 Asteartea

Ez da programaziorik egongo.

2 Astezkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Bakarka
 Gonbidatua: **Martxelo Ota-
 mendi**. Egunkariako zuzendaria.

3 Osteguna

13.30etan
Bakarka (errep)
 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan

Ibilixan Dabilena.
 Gonbidatua: **Damaso Gallastegi**. Duela urte batzuk Hego-Ameriketatik egindako bidaiaren gainean mintzatuko zaigu. Bertan egindako argazkiak ere ikusi ahal izango ditugu.

4 Ostirala

13.30etan
Ibilixan Dabilena (errep)
 19.15etan
Marrakzi Bizidunak
 19.50etan
Kukaratxa Motel
 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Astebete Xabier Ibarzabalek aurkeztua.
 22.00etan
Marrakzi Bizidunak

• SOLUZIOAK •

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

*Mendi
 taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
 Tfnoa: 79 20 54

Horizontalak: 1. Gaintzal, 9. Orto-
 novo, 10. De, 11. Kiron, 12. Ora, 14.
 La, 15. Lorbid, 18. Tamesi, 20.
 Trunoi.
Bertikalak: 1. Godalet, 2. Areto, 3.
 It, 4. Non, 5. Anonimo, Zor, 7. Avi-
 les, 8. Loka, 13. Ortu, 16. BAM, 17.
 Del, 19. II
Jeroglifikoa:
 Xabirekin.

Etxebizitzak

- **Donostian, zentruko ikasle-pisua** osatzeko neska behar da. Banakako gela. 15.400 pta. Tfnoa: 77 00 29 (goiz partean deituta hobe).
- **Donostian ikasle pisu** batean, gela bat libre daukagu alokatzeko. Interesatuta bazau-de, dei egin 79 33 58ra.
- **Ikasle pisu** batean logelaren bila nabil. Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoa: 39 83 73. Dei egin asteburuetan.
- **Bere etxean ikasle bat** hartuko lukeen familia bat behar da. Tfnoa: 64 08 76. 8etatik 10etara.
- **Langile batek etxebizitza behar du** alokagai Arrasaten. Tfnoa: 88 25 71.
- **Bi ohetako gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai** Okendo kalean, 1 - 5º A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldean deitu.
- **Pisu bat daukat alokagai.** 4-5 pertsonentzat. Erdikaldean. Tfnoa: 79 18 03.
- **Garaje bat alokagai** Roneon. Tfnoa: 79 36 09.
- **Garajea salgai** Atxabaltan. Tfnoa: 79 29 19.
- **Bi kotxe gordetzeko garajea** alokatzen da (Roneon) Tfnoa: 79 77 13. Dei ezazue gaueko 9etatik aurrera.
- **Erdiko kalean pisu on bat** alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzako. Dei egin 77 03 38 / 79 18 03 Tfnoetara.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa: 79 31 25.
- **Pisu bat osatzeko** mutil bat behar dugu. Bilbon. Prezioa: 13.500pta. Tfnoa: 79 49 28. Gorka.

Lana

- **Emakume euskalduna** etxekolanak egin edota umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska bat eskaintzen da** etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 76 27. (dei egin 9etatik 11tara).
- **OHOko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **33 urteko andra bat** pertsona nagusiak zaintzeko prest, arratsaldean edota gauez, egotzean edota etxe partikularretan. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.
- **Aramaioko "DUKIENA" jatetxeak** sukaldari bat behar du. Harremanetarako dei egin 945-44 50 86 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen ditut** urte osoan zehar. Tfnoa: 79 31 48.
- **OHOko klase partikularrak** ematen dira. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 59 68.
- **23 urteko neska euskaldunak** dendari edo kamarera moduan egingo luke lan. Tfnoa: 79 41 33.
- **Emakumea** eskaintzen da etxeko garbitasunak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 31 58.
- **Neska etxeko lanak egiteko** gertu. Esperientzia daukat. Tfnoa: 79 93 17.
- **28 urteko neska esperientziaduna** eskaintzen da etxeko garbitasunak egiteko, haurrak zaintzeko edota dendari lanak egiteko. Tfnoa: 79 95 92 (Pili).
- **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa... Maila guztiak. OHO, BO, GB, BBB, UBI.... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoak: 77 04 07 (6040).
- **Zure etxeko lanak** egiteko prest nago (esperientzia daukat). Tfnoa: 79 93 17.

Salerosketak

- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m. etako DINASTAR markako tablak. LOOK markako fijazioak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Interesatzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2 radiadore FAGOR programadoreaz. - Teklatu-organoa LOWREY. Oso merke. Tfnoa: 79 82 47. Gauez.
- **Alarma sistema bat,** denda edo taberna baten-tzako, salgai. Tfnoa: 79 53 18. 70.000 Pta.
- **100 litrotako termoa salgai.** Egoera onean dago. Tfnoa: 79 07 73.
- **VOLKSWAGEN "CORRADO"** markako autoa salgai. 16 balbula. SS-AG. Tfnoa: 76 38 16. Gaueko 8etatik 10etara deitu.
- **Pinuzko atek salgai.** Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 25 20.
- **Bigarren eskuko ordenagailu bat** erosiko nuke. Tfnoa: 77 04 98. Irene (Bulego orduetan).

Denetarik

- **Egunero Gasteiza joan** beharra daukat goizeko 8etarako. Nahi baduzu nirekin etorri (gastuak erdibana) hor doa nire tfnoa: 79 80 91.
- **Urrezko pultsera aurkitu dut** Lorategi taberna ondoan. Jesus izena darama. Tfnoa: 79 41 48.
- **Ostiralean kazadora bat** aurkitu nuen erdikaldeko autobus geltokian. Tfnoa: 77 10 59.
- **Deba-Elgoibarretik** 4etatik 7etara pasatzen bazara, dei egidazu 79 20 52 tfnora. Xabier.
- **Urriak 22 larunbatean,** betaurrekoak galdu zitzaizkidan, kaxa beltz batetan, Sebero eta Uriben artean. Aurkitzen baduzu deitu 79 37 87 tfnora.

Aste Gazte

Lana

• Oartzungo Udalaren lanpostu deialdiak: a) Euskera eta Kultur Teknikaria, Lizentziatuei zuzendua. B) Administrazio orokorreko teknikaria, Zuzenbidean edo politika zientzietan lizentziatuei zuzendua. Epea: azaroak 7

• Bergarako Udalak: Udala Biltegiko Arduraduna, urtebeterako. LHII edo goi-batxilergoa. Epea: urriak 28.

Bekak

• Administrazio publikoen hizkuntza normalkuntzari buruzko gaiak ikertzeko bi beka. Epea: Azaroak 11.

• Ararteko Erakundeak bi lankidetzak beka deitu ditu. 1992ko urtarilaren batz geroztik lizentziatu tituluaren jabe izan behar da. Epea: azaroak 5.

Ikastaroak

Saloi dantzak (tangoa, valsa, rock&rolla, rumba...) azaroaren 3an hasita, ostegunero 16 ordu betearte, ilunkean 8.30etatik 10.30etara. Matrikula: 10.000 pta (7.000 ikasle eta langabetuentzat)

• Salsa ikastaroa, azaroaren 14tik 25era, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Goizez (10.45-12etara) edo arratsaldean (6-7.15 eta 8.15-9.30). Matrikula: 3.000

pta (1500 ikasle eta langabetuentzat).


• Argazkigintza II. mailako ikastaroa (errebelatua koloretan, besteak beste). Azarotik abendura, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta (1500 pta ikasle eta langabetuentzat)

• Komiki Tailerra Monterron Jauregian. Azaroko larunbatetan (hilak 5, 12, 19 eta 26). 13 urte gorakoei zuzenduta. Izenak emateko epea zabalik. Matrikula doan.

• Keramika ikastaroa, hastapen maila. Azaroaren 2tik aurrera, astelehen, astearte eta ostegunetan, 6etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta.

"Militarismoa baztertzen joatea egiazko bakerako bidean ibiltzea dela uste dut"

**PELLO APEZETZEA
APAIZA (EGUNKARIA)**



**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

San Frantzisko Xabier




FERIXALEKUKO PATIXUEN...



Bale bal Guazen ikusten. Ikusikozu zenbat gauza dazen!

Aibal Hau da ikastola barrixe? Ikusi gure dot.

LABORATORIXUEN...



Zer da hau?

Hau mikroskopixue da. Gaur arrain bat ipini dogu eta odola zelan mobiduten jakon ikusi dutzau. Polittauel

INFORMATIKAN...



Honekin programa asko eta gainera marrazkiak diseinetan be ikesi biou.

Jo, ke morro! Zenbat ordenadore! Jolas itteko, ezta?

TAILERRIEN...



Eta makina honeik? Zer eitten dozue honeikin?

Akordetan zara zure egunien kotxe bat erregalau notzula? Ba, hemen ein nauen

ARGAZKI GELAN...



Ez, errebeletako. Lenengo erretratuek atara eta gero errebelau, jakina. Zeuri be tokauko jatzul

Eta pelikula hauek, zintzilik erropak moduen?

JANGELAN...



Aibal Hoi mahai morduel! Lagun guztiok alkarrekin jateko moduen! Ke Heavy!

Beinkel! Gurasoek be etorri leikez gure badaue. Eurendako be apartedauen beste leku bat atondu da eta.

Ferixalekua, ☎: 79 64 79

Super-Finantziaketa


12 hilabete	%0 T.A.E.
24 "	%4,9 T.A.E.
36 "	%8,9 T.A.E.
48 "	%10,9 T.A.E.

Scort - Fiesta - Courier - Transit...


Serieko Airbag-a



**Egitura indartua
eta alboetan
babeserako barrak**



**Fiesta S.i. Ohikotik kanpo.
Jende ez-ohikoarentzat.**



Fiesta S.i. berria



MUGARRI